SAKANAKO ASTEKARIA • 2014ko irailak 12, ostirala • 2. aldia • 476. zenbakia

Bihar hasiko dira Altsasuko festak

>>8/10

GUAIXE.NET

PRES TOKIKOM

Ibarreko dendari elkartea sortzen

>>7

Igandean azoka Irurtzunen

>>5

Euskaltegietan izena ematera gonbidatu du Mank-ek

>>5

Arakil aldeko eta Urbasako baso-antolaketa proiekturako laguntzak

>>6

Liburu elektronikoak liburutegietan eskuragarri

>>15

400 erabiltzaile Altsasuko etxegabeen aterpean

>>6

Altsasuko pilota txapelketako finala bihar

>>12

Bertso eskoletako izen ematea zabalik

>>15

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingresatuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Jarraitu gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA
Leiho·Isolatzaileak • Alumninioa·P.V.C·Mistoak
GURE RENOVE PLANA
%20ra arteko deskontua
Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com

Iraia Otsoa Perez
ZORIONAK pottoka zure 2. urtebetetzean!!! segi horrela beti farre egiten!musu pottolo bat amatxo eta aitatxoren partez!!!

Nagore Ruiz de Galarreta Comin
ZORIONAK polittа!! Izugarri maite zaitugu. Aita, ama, aiton-amonak, osaba-izebak eta lehengusuak. Muxu asko.

Luna
ZORIONAK Pixpirrin! Egun ona pasa eta badakizu ilargiraiño eta buelta maite zaitugula.

Aritz eta Unax Azkona
ZORIONAK kinto txikiek! 2 urte dagueneko! Oso ongi pasa. Muxu haundi bat etxekoen partez.

Elorri Mendinueta Larrion
ELORRI, Zorionak sorgintxo! Gaur bost urtetxo betetzen dituzu. Disfrutetu egunа eta primeran pasa festetan. Etxekuen partes.

ZORIONAK IRATI!
Zure guraso eta familiakoen partez mila kilo muxu!

Aimar Lazkoz Ruiz
ZORIONAK ederra. 3an 4 urte bete zenuen. Oso ongi pasa genuen elkarrekin. Seittu guai arte bezein alei ta zoriontsu. Muxu haundi bat Lizarragako eta Arbizuko familia guzien partez.

Ana Irigoien
ZORIONAK POTXOLINA. Mila muxu MALAGAINDO. Amona eta DENON PARTETIK.

Ana Irigoien
ZORIONAK ZURE 10 URTEBETETZEAN berezi Mikel, Adur eta Amaiurren partez.

Bazkideek deskontua

Bakarra: 3,50€

Bikoitza: 7€

irailak 12-18

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Habeas Corpus+Zartako-k. Irailaren 12an, ostiralean, 23:00etan Altsasuko plazan.

Mendi irteerak

Auntzetxera Basopokaletik. Irailaren 13an, larunbatean, 16:30ean Etxarriko kanpingeko aparkalekutik. **Sakanako ikastolen mendi taldea.**

Urdiain-Eulate. Irailaren 14an, igandean, 7:00etan. **Sakanako Mendizaleak.**

Erakusketak

Festetako kartel lehiaketako erakusketa. Irailaren 12ra arte, astegunetan, 10:00etatik 14:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean.

Gure sustraiak ardazten. Lastailaren 26ra arte, Altsasuko Basoko Mari dendan. Paz Treuquil maputxearen margoak.

Bestelakoak

Bisita gidatuak Zamartzeko arkeologia-aztarnategira. Irailaren 13an, larunbatean, 11:00etan Uharte Arakilgo Zamartzen.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Irailaren 12an, ostiralean, 20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Irailaren 14an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Sakanako AEK
Altsasuko Itsasi euskaltegia
Gartzia Ximenez 46, 1.
ALTSASU
948 468 258
sakana@aek.org
eman izena

objektibo tik

Ikuspegi morea: Eta ez kolpeengatik begi urdinduak, ez. Genero berdintasuna lortzeko betaurreko moreak janzteko gonbitea egin dute Altsasuko mugimendu feministako kideek. Photocalla antolatu zuten garagardo azokan.

objektibo tik: gutunak@guaixe.net

Ostiralero SAIOA 9:30etik 10:30era
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.
107.3 FM beleixe online
www.guaixe.net
Pizfu irratia!
ASTEBURUKO AGENDA
ASTEKO ERREPASOA:
albisteak, kirolak,
Mari Luz Oyarbide liburuzaina,
Altsasuko txupinazoaz...
Esataria: Eneida

ezkaatza >>

» SAKANA

Esker oharra

Bidean lagun

Ikasturtea hastearekin bat, ilusioz hasten gara denok etxeetan, ikastetxeetan, lantokietan... ardura zaharrei eta erronka berriei aurre egiten. Gurean ere, Bierrik Fundazioan, gogotsu hasi dugu ikasturtea, eta, horren adibide dira ikasturteko 1. Guaixea garaiz iritsi zela buzoietara eta Beleixe Irratia eta www.guaixe.net zerbitzua eskueskura ditugula.

Ikasturte berriak aldaketa garaiak ere izaten dira, eta gurean bada aldaketarik eta berririk: azken 4 urteetan Bierrik Fundazioaren gidari eta Guaixe astekariko eta Beleixe irratiko lantaldeen koordinatzaile izan den Ainhoa Urretagoienak lana utziko du, eta Goizeder Antonek hartuko du haren lekukoa.

Bierrik Fundazioaren izenean eskerrak eman nahi dizkiot Ainhoari, urte hauetan egindako lan handiagatik. Garai gogor eta zailetan gidari ardura izan du Ainhoak, eta berak egindako lanari esker iritsi gara gauden egoerara. Ezin esan garai zailak atzean utzi ditugunik, baina egia da Fundazioa eta komunikabideak egonkortze bidean daudela, lantaldeari, bazkideei, laguntzaileei eta kolaboratzaile guztiei esker. Partaide guztien artean zubi-lana ezinbestekoa izaten da, eta lan hori ederki bete du Ainhoak.

Aldaketak badira eta erronkarik ez da falta. Batetik, gertuen dugun erronka ospakizun handi bat Guaixek 20 urte beteko dituela da eta 15 Beleixe irratiak; hurrengo asteetan zehaztuko ditugu bi urteurren garrantzitsu eta handi horiek ospatzeko ekitaldiak. Bestetik, orain arteko lanetan jarraitu, proiektu berriei eutsi, Sakanan euskaraz bizitzeko lanean jarraitu, komunikabideak indartu, sakandarron arteko zubiak eraiki, webguneko komunitatea zabaldu...

Proiektuek pertsonak behar izaten dituzte aurrera egiteko; proiektuek aurrera egin ahala, pertsonak aldatu egiten dira; hasieran zeudenei bidelagunak gehitzen zaizkie, eta, lantaldea/laguntaldea handituz, proiektua bera orduan eta gehiago handitzen eta zabaltzen da.

Eskerrik asko bidelagun izateagatik, Ainhoa; ongi etorri lantaldera, Goizeder.

Iñaki Mundiñano
Bierrik fundazioko patronatu burua

Lekuko aldaketa Bierrik fundazioan

Aldaketa garaia bizi dugu egun hauetan Bierrik fundazioan. Kudeatzaile bat joan eta berria heldu da. Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena da joaten dena eta Goizeder Anton Iturralde da heldu dena. Fundazioaren martxaren berri ematen ari dio lehenak bigarrenari. Horretan buru-belarri daudela, Bierrik fundazioaren, Sakanako euskarazko hedabideen inguruko galderak erantzun dizkigute.

Ezkerrean, Ainhoa, eskuinean, Goizeder. Elkarrizketak osorik: www.guaixe.net.

gertutik >>

Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena

Kudeatzailea ohia

Azken lau urteak koordinatzaile lanetan aritu zara eta aurretik publizista.

Fundazioak erabaki asko zituen hartzeko mahai gainean eta hasiera aldapatsua eta nekeza izan zen. Adrenalina ez da falta izan.

2012an arriskuan egon ziren Guaixe eta Beleixe.

Bai, 2011. urtean 0€ jaso genituen Gobernutik eta beste diru-laguntzek ere behera egin zuten. Gainera, publizitatetik lortutako sarrerak ere oso txikiak izan ziren. Eta hori gutxi balitz, fundazioak urte askotan pilatutako zorra zuen. Fundazioaren urte gogorrenak izan ziren, egindako lan guztia eta proiektua bera kolokan baitzeuden.

Zer oroitzapen dakarzkizute zenbaki eta hitz honek: 2000 esker?

Jendearen inplikazioa eta elkartasuna datozkit burura. Talde eragile bat, herri guztietan kontaktuak eta sare oso indartsu bat lortu genituen: dena 1570 bazkide lortu eta proiektua aurrera ateratzeko. Bazkide berriak lortzeko pizgarria izan zen sortu berri genuen deskontuen txartela. Emaitza pozgarria izan zen: 1570 bazkide.

Eta nolaz heldu zenioten proiektu berriei?

Baliabide gutxiagorekin komunikabideak aurrera atera behar izan genituen eta nolabait indarberritzea berebizikoa zen. Webgunea berritzeko apustua egin genuen, apustu ausarta. Joera berriei egokitu eta komunikabideak indartu nahi genituen, kalitatean aurrera-pauso bat eman eta kanpainan lortutako bazkideei zerbitzu on bat eskaini. Herritarren parte hartzea sustatu eta aktualitatea formatu ezberdinetan eskaini nahi genuen.

Zer moduz dago gaur egun Bierrik?

Fundazioaren finantza egoera hobea da, azken lau urteotan zulo ekonomikoa asko jaitsi da eta osasuntsuago dago. Hala ere, auto-finantziazioan beste pausu bat eman behar du. Eskualdean komunikazio lanetan erreferente bilakatzea da erronka.

Tokiko prentsak etorkizunik du?

Tokiko komunikabideak kontsumitzen jarraituko du jendeak, gertuko informazioa eta bat-bateko informazioa dira etorkizuna.

Zein dira zure kudeaketaren argi-ilunak?

Kudeaketarako ez dira urte xamurrak izan, erabakien eta aldaketen garaia izan da. Askotan bitartekari lana egitea egokitu zait eta egia esan hilabete zailenetan esperientzia eta bestelako tresnak faltan bota ditut. Asko inplikatu naiz proiektu honetan eta arduraz eta ausardiaz jokatzen saiatu naiz. Murrizketen prozesua izan zen gogorrena eta nire lan kuttunenak bazkide txartelaren sorrera eta atari berriarena izan dira. Auto-kontzientziarako eta ezagutzarako urte aproposak izan dira, benetan.

Eskerrak eman nahi dizkiet kanpainan lagundu gintuztenei. Fundazioari eskertzen diot arduradun izateko aukera ematea. Eta, bereziki, nire ondoan egon diren pertsonei eskertzen diet, proiektu hau aurrera eramaten laguntzeagatik eta nigan konfiantza izateagatik.

Zorterik hoberena opa diot Goizederri eta lan talde osoari.

gertutik >>

Goizeder Anton Iturralde

Bierrik fundazioko kudeatzailea

Orain arte ikusitakoarekin, zer argazki atera duzu?

Ateratako argazkia txuri-beltzean eta oso panoramikoa da momentuz. Denborarekin zoom-a egin eta koloreztatzen joanen naizena. Baina polita da eta aukera askorekin. Zinez espero dudana da proiektu honek merezi duen lan eta dedikazioa notarekin gainditzea.

Administrazioei eskatuko zenieke?

Euskarazko hedabideen defentsan ausardiaz jokatzea eskatuko nieke. Hedabide txiki eta ez horren txikiek ezinbesteko papera jokatzen baitute euskal gizartean. Euskara da egun dugun ondarerik preziatuena eta guztion inplikazioa ezinbestekoa da.

Sakandarrei?

Azken egun hauek nahikoak izan dira sumatzeko Guaixe altxor kuttun bat dela sakandarren artean, oso gertukoa eta preziatua. Honekin batera, animatu nahi nituzke sakandar guztiak gure familia honen parte izatera. Bakoitzak ahal duen neurrian, bere ekarpena egin dezake, badira hainbat modu sostengua emateko: bazkide eginez, komunitateko kide eginez...

Badugu uneotan proiektu polit bat eskuartean interesgarria dena eta probestu nahiko nuke jendea animatzeko: Sakanako Gida Komertziala argitaratuko dugu datorren hilabetearen hasieran. Erakusleiho interesgarri bat izan daiteke zuen negozio, zerbitzu, eta abarrak ezagutarazteko. Paperezko bertsioarekin batera, on-line bertsioa ere prestatuko dugu beraz munduratu zaitezkete! Egunotan gure komertzialak jotake dabiltza produktua zuenera eramaten baina zaila da guztiengana iristea, beraz, jakin ezazue hilabete honen bukaeran, irailak 26, iragartzeko epeak itxiko ditugula. Gustu handiz jasoko ditugu zuen ideiak, kritikak, kezkak. Horretarako, bulegoko ateak zabalik dituzue eta fisikoki ez bada ere, e-postaz bierrik@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoan ere ongi etorriak izanen zarete.

Badira hainbat modu sostengua emateko: bazkide eginez, www.guaixe.net-eko komunitateko kide eginez...

Bierrik fundazioko laguntzaileei/bazkideei?

Kontziente izanda bizi garen egoerak ez direla samurrenak, eskerrak eman bazkide guztiei egiten ari diren ahaleginagatik eta jasotzen ari garen sostenguagatik, ikusi dudanez, asko dira eta. Oso garrantzitsuak dira guretzako.

Lankideei?

Nirekin batez ere hastapenetan, pazientzia izan dezatela. Argi dago lanean fin dabiltzala proiektuak hemendik gutxira 20 urte beteko baititu eta hau ez da gauza makala! Goazen denon artean beste hainbeste betetzera!

Lanerako gogoz?

Hori da orain eskaini dezakedan baliorik handiena, lanerako gogo eta ilusio osoa.

Harrera oso ona izan dut lan taldean eta ordezkatuko dudan Ainhoa bereziki egiten ari den lana lekuko aldaketa prozesuan, txapela kentzekoa izaten ari da. Milesker!

astekoa

Zoila Berastegi

Iraila

Hilabete berezia da iraila. Eta ez diot urtaro aldaketa dakarrelako harekin, ikasturtearen jo puntua delako baizik. Denborak eta ibiliak hustuko dituen asmo eta proposamen puztuen garaia; Laboaren omenez, martxa baten lehen notak. Nota haien esana, egungo iraila honek ere badio: "bat inon loturik deino ez gara libre izango". Herrirak, herriak, dio. Eta aurtengoa ere kolosala izango da, beste milaka lagunekin batera Sarrik bertan bere izenburua Bilboko kaleetan barna irudikatuko baitu. Izan ere, irudi batek mila hitzek baino gehiago balio dutela esan ohi da sarritan: Mali, Senegal edo Gineako gizon bat, salbamendu-jaka soinean, uretan flotatzen, haren aurpegi eta azken arnasa ur azpian galdurik, eta honekin eskutik Espainiar estatuak Europari laguntza ekonomikoa eskatuko dio etorkinen etorrera ekiditeko. Merkantziek libreki zirkulatzen duten honetan, pertsonek libre zirkulatzearen "arazoa" "konpondu" "beharra" dago, esango du bere baitan atzerriministroak iraileko egun hauetako batean. Konpontzeko gatazkak egon badaude, han eta hemen. Baina gatazkak konpontzea nahi ez dutenak ere bai, bai han eta bai hemen. "Han" da Palestinan, Sirian, Ukranian, AEBn eta komunikabideak iristen ez diren eta beraz ikusten ez ditugun munduko beste hainbat txokotan. "Hemen" da gurean, etxean. Katalanentzat "V" denak Elhuyarren badu itzulpenik: "G", garaipena. Euskal Herriaren G puntua aurkitzea da beste askorentzat eskubidea. Izan ere, eskubideak ez dira negoziatzen, ez irailean ez beste hilabeteetan. Poltsa beltzen mespretxua jasan arren, "Jaizkibel"-ek badaki.

barrutik kanpora

Gero eta gorago, aldaketa sakonago

Ekainean Unibertsitate Europarrak antolatutako Gazte Ekintzaile Sozialen Txapelketako garaile izendatu gintuen eta uda osoa gelditu gabe ibili gara. Iraila hilabete polita izango da. Irailaren 14tik 21ra, Sakantzen Sarea Madrilen izanen da Unibertsitate Europarrak banatuko digun saria jasotzen. Momentu berezia eta ahaztezina izango da.

Bestalde, ikasturte berriari ongi etorria eman nahi diogu Suedian aurkitzen den Vittra esperientziaren berri emanez.

Vittra esperientziak eskola publikoen hezkuntza sisteman lan egiten du. Enpresa pribatu batek kudeatzen duen arren, diru publikotik finantzatzen dira. Guztira, 27 hezkuntza zentro dituzte eta urte batetik, 16 urte bitarterako hezkuntza sistema eskaintzen dute. 8.500 ikasle dituzte.

Vittra eskolak orain dela 20 urte sortu ziren eta hezkuntzaren erronkei aurre egiteko eraiki ziren. Espazio irekietan lan egiten dute eta espazioen arteko banaketak kristalez egin dira. 120 minutuko ikasgaiak dituzte, ikasleari etxeko lanak egiteko denbora eta guzti ematen diolarik. Ikasle bakoitzak gainera, "Vittra liburua" dauka, norbanakoaren garapena bultzatzen duen plana hain zuzen.

Normalean, ikasleak ez dira lau pareten artean eserita egoten eta beraz, irakasleen rola ere ezberdina da. Kasu honetan, irakasleak ikaslea gidatu, orientatu eta motibatu beharra dauka. Gainera, bakoitzak 20-30 ikasle bitarteko taldeaz arduratu beharra dauka eta bestetik, 1-3 gai bitartean irakasten ditu.

Suediako hezkuntza sistema aldatu duen esperientzia iruditu zaigu eta guztiontzat interesgarria izango delakoan idatzi dugu. Informazio gehiago behar izanez gero hurrengo web gunean begiratu dezakezue: http://www.vittra.se/Default.aspx?alias=www.vittra.se/english

Besterik gabe, agur t'erdi.

Sakantzen Sarea

hara zer dien

Atenpro zerbitzua

Nahiz eta aurrerapenak egon diren azken urteotan, emakumearen kontrako erasoetan asko dago egiteko.

Abiapuntua hezkuntza izan beharko litzateke, emakume eta gizonen eskubide eta betebeharren berdintasunean oinarritutako hezkuntza bat.

Baina bide hori poliki poliki jorratzen doan bitartean erasoak jasan dituzten emakumeek badute babesteko tresna bat: ATENPRO izeneko gailua (Genero Indarkeriaren Biktimak Babestu eta Atenditzeko programa).

Programa hau 2004ko maiatzaren 7ko Ministro Konseiluan onartutako Genero indarkeriaren kontrako Neurri Larrien Planarekin abiatu zen.

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasunerako Ministerioak ezarritako zerbitzu bat da eta kudeaketa Espainiako Udalerri eta probintzien Federazioak darama. Nafarroan Gurutze Gorriak egiten du jarraipen zuzena.

Zertan datza?

ATENPRO gailua zerbitzu telefonikoa da (izan ere, telefono mugikor arrunta ematen du) eta eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan erabilgarri egoten da. Lokalizazio teknologiei esker zerbitzuak berehalako erantzuna ematen du eta biktimari arreta jasotzea eskaintzen dio, horretarako formatuta dauden pertsonekin kontaktatuz eta momentuko egoerari aurre egiteko behar diren baliabideak martxan jarriz (pertsonalak, materialak....).

Emakumeak telefonoan dagoen botoia zapaltzearekin erantzuna jasotzen du. Sakatzeko arrazoiak hainbat izan daitezke: erasotzailea ikusi duelako, erasoa jasaten ari delako, beldurra daukalako, babestuta sentitu nahi duelako, lagunduta, entzuten eta ulertzen dion norbait behar duelako.... Eskaeraren arabera erantzuna ematen da (atentzio psikologikoa, polizia, orientazioa etab.)

Behin botoia sakatuta erabiltzaileak ezin du deia moztu, bakarrik atentzio zentrutik egin daiteke hau.

Nola eskuratu?

Udalerriak edota tokiko entitateak ATENPRO zerbitzua jasotzeko akordioa sinatu behar du eta banakako eskaerak emakumearen atenziorako zentroetatik edo Gizarte zerbitzuetatik bideratzea da egokien.

Gizarte zerbitzuak

gora/behera

▲▲ **Biziberritua**
Indartsu bueltatu da, bertako produktuak sustatuz, Arakilgo eta Irurtzungo azoka.

▼▼ **Berdintasun eza**
Festetan ere ezetza ezetz dela gogorarazi behar izatea ere...

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano eta Eñaut Arribengoa Apaolaza
ZUZENTZAILEA: Garazi Barandalla Kanpos
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde eta Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

BAZKIDEAK

Mank sakana

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saileurrordetza

sakanerria >>

SAKANA

Euskaltegietan izena ematera animatu du Mank-ek

Euskara oraindik ezagutzen ez dutenak probatzera animatu nahi dituzte, eta jada ezagutzen dutenak horretan euskaraz janzten eta erabiltzen jarraitzera, euskararen bizi-estiloan murgiltzeko

Dagoeneko matrikulazio epea zabalik dago euskaltegietan. Hori dela eta, Nafarroako toki-erakundeetako euskara zerbitzuek, Sakanako Mankomunitatekoa barne, euskaltegietan izena ematera animatu dituzte nafarrak. Horretarako, *El euskera te sienta bien!/Euskarak ederki ematen dizu!* leloa zabaldu dute esku-orri, kartel, www.modelo-e.com eta www.e-eredua.com atarien bidez.

E eredua marka

Euskaltegien zeregin arrakastatsu eta eraginkorrari erreferentzia egiten dion E eredua marka sustatzen ari dira euskara zerbitzuak. Mank-etik azaldu digutenez, "Nafarroan euskaltegien sare zabal eta espezializatua dugu eta, garrantzitsuena dena, etxetik hurbil. Gainera, eskaintza erakargarria eta askotarikoa dute". Euskaltegietan "edonoren behar eta gustuetara hobekien egokitzen den eta behar den aukera" opatzeko aukera dagoela ziurtatu dute euskara teknikariek. Pasa den urtean 3.000 nafar inguruk egiaztatu ahal izan zuten euskarak ederki ematen duela.

Matrikulazio-epea

Dagoeneko zabalik dute matrikulazio-aldia euskaltegiek. Sakanako AEK-ren Itsasi euskaltegian izena emateko azken eguna irailaren 22a izanen da. Klaseak Irurtzunen, Etxarri Aranatzen eta Altsasun emanen dituzte, baita taldea sortzen den Sakanako beste edozein herritan ere. Informazio gehiago AEK-ren Itsasi euskaltegian, Gartzia Ximenez, 46.-1.goan. Altsasun; 607 624 392 telefonoan edo sakana@aek.org e-postan.

Diru-laguntzak

Mank-eko Euskara Zerbitzuak euskara ikasteko diru-laguntzak ematen ditu. Eskaeren arabera, langileei, gutxi gorabehera, matrikularen %45 ordaintzen die eta langabeei %55. 2012-2013 ikasturtean 91 eskaera jaso ziren eta 2013-2014 ikasturtean, berriz, 110. Diru-laguntza horien inguruko informazioa Mank-eko Euskara Zerbitzuan: 948 464 840 eta 948 464 867 telefonoetan edo euskara@sakana-mank.com.

» Arakil/Irurtzun

Berrikuntzak nekazari azokan

Erakunde antolatzaileetako ordezkariak atzo azalpenak ematen. UTZITAKOA

Igandean, 10:00etatik 14:30era, Irurtzunen azienda, artisauak, jakiak, erakusketa, jokoak eta beste izanen dira

Lau hamarkada egin gabe pasa ondoren, joan den urtean berreskuratu zuten Irurtzungo ganadu azoka. Arrakastatsua izan zen aurreneko edizio horren segida da igandekoa. Gainera, eskaintza berritu dute antolatzaileek. Foru plaza, Lizarra kalea, plazako frontoia eta barazkien merkatu zaharra etzi eraldatuko dira.

Arakilgo ibarreko hiriburuko Foru plazan, igandean, 21 postutan elikagai ekologikoak eta konbentzionalak opatzeko aukera eskainiko du Sakanako EHNEren ekimenez sortutako Belardi ekimeneko nekazarien eta abeltzainen taldeak, baita bertako dendek ere. Bestalde, Arbaso, Euskal Herriko Artisauen Elkarteko postuen eskaintza zabala ere izanen da Irurtzungo Lizarra kalean.

Postu artean ibili nahi ez duenak azienda ikusteko aukera izanen du plazako frontoian: latxa ardi arpeltz eta mutur gorriak (Aslana), Nafarroako rasa ardia (Arana) eta sasi-ardia (Sasiko), behi piriniarra (Aspina), nafar kasta eta betizua (Asbena,) Auritz arrazako zaldi-behorrak (Ascana) eta Nafarroako jaka (Jacana).

Desagertze zorian

Halaxe daude Piriniotako ahuntza (855 buru dira Nafarroan), pottoka (146 buru) eta Euskal zerria (120 zerrama). Haietako batzuk etzi Arakilgo eta Irurtzungo azokan ikusgai izanen dira, gainontzeko aziendarekin batera. Nafarroako Gobernuak aurki haiek desagertzeko zorian dauden arraza gisa hartuko dituela aurreratu dute antolatzaileek.

Berrikuntzak

Bigarren edizioan gizarte, ekonomia eta kultura ohiturak berreskuratzeko ohituretan sakondu nahi izan dute. Garai bateko azoken balioen muina mantenduz, antolatzaileek haiek eguneratu nahi izan dituzte. Hala, Irurtzungo hainbat tabernetan menudikoak edo barrukiak eta babak buztanarekin dastatzeko aukera izanen da. Horiek eta tripakiak, txerri hankak eta belarriak moduko mokaduak dastatzen zituzten eta dituzte abeltzainek eta tratanteek.

Jai egunetan ohikoa zen botxetan aritzea. Botxa jokoa ezagutzeko Irurtzungo Irtaxo elkarteak bi emanaldi egingo ditu igandean. Amaia kalean, berriz, garai batean lana egin ahal izateko erabiltzen zituzten lan tresnak ikusgai izanen dira. Garai bateko teknologia eta jakintza ezagutzeko aukera izanen du horrela bisitariak. Bestalde, belar metak edo sokak egiten ikusiko dituzte.

Sona handiko azoka izandakoa

Arakil, Goñi, Ollo, Sakana, Larraun, Oltza Zendea, Gesalatz, Iruñerria, Euskal Herria edo estatuko Gaztela-Leon, Aragoi, Katalunia eta Valentzia aldeko tratanteak izan ziren garai batean Irurtzungo azokan.

Dozena bat antolatzaile

Irurtzun eta Arakilgo udalak, Sakanako Garapen Agentzia, Nafarroako bertako arrazen elkarteak, Arbaso Euskal Herriko Artisauen Elkartea eta Belardi elkartea.

Egitaraua

>> Irailak 13, larunbata

8:30ean Irurtzun-Donostia mendi bizikletaz, Plazaolaren ibilbidetik (Info: 620 190 277).
10:00etan Irurtzungo eta Arakilgo bidexketatik ibilbide gidatua. Irurtzungo Foru plazatik.
17:30ean Egiarretako XVI. mendeko elizako erretaula ezagutzeko bisita gidatua.
Ondoren, Itxasperriko ermitara bisita gidatua.

>> Irailak 14, igandea

10:00etatik 14:30era Bertako abereen gunea eta azoka gardena.
11:30ean Botxa erakustaldia Iratxo elkartean.
12:00etan Motozerrekin eginiko eskulturak.
12:30ean Belar-metak egitea.
13:00etan I. Arakilgo argazki lehiaketako sari banaketa.

Goizean zehar: Nekazal lanbesen erakusketa, soken ohiko lantzea, kale animazioa, artisau forja, taloak, haurrendako zeramika eta belar meta eta Irurtzungo eta Arakilgo turismo informazioa.

SAKANA

Baso antolaketa proiektuetarako 125.480 euro

Batetik, Arakilerako, Irañetarako eta Irurtzunerako, eta, bestetik, Urbasako proiektuetarako laguntzak eman ditu Nafarroako Gobernuak

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentuak agorrila hasieran despeditu zuen Sakanako bi eremuak antolatzeko proiektuen kontratazioa. 2014 eta 2015ean gauzatuko dira jarduerak eta guztira 125.480,72 euro bideratuko ditu. Arakilgo, Irañetako eta Irurtzungo proiekturako 52.938 euro bideratu ditu (29.115,90 euro 2014an eta 23.822,10 euro 2015ean). Urbasakorako, berriz, 72.542,72 (50.779,90 euro 2014an eta 21.762,82 euro 2015ean).

Basoen antolamendurako proiektuak mendiko baliabide guztien (begien bistakoak izan zein ez) eta baliabideen arteko loturen aprobetxamendu arrazionala identifikatzeko, kalkulatzeko eta planifikatzeko egiten diren idatzi, kalkulu eta planoak dira, iraunkortasuna, kontserbazioa eta hobekuntza ziurtatzeko. Gainera, tresna horiek lehiarako abantaila dira; izan ere, nazioarteko erakundeek ematen dituzten iraunkortasun-zigiluak bermatzen dituzte. Esaterako, egurra merkaturatzea errazten da.

Behiak Urbasa-Andiako aska batean ura edaten.

» Altsasu

Joan den urtean 406 egonaldi izan ziren etxegabeen aterpean

382 gizon eta 2 emakume pasa ziren Kaputxinoen egoitzaren ondoan dagoen etxegabeen aterpetik

Altsasun pasan zeuden 384 pertsona izan ziren etxegabeen aterpea erabili zutenak. Batzuk urtean zehar behin baino gehiago erabili zuten etxegabeen aterpea. Guztira 406 egonaldi, aurreko urtean baino bederatzi egonaldi gehiago. Guztiek afaria, gau batez han lo egiteko aukera eta gosaria jaso zuten. Altsasuko aterpeak zortzi plaza ditu.

Altsasuko Udalaren eta Gizarte Politiketarako Departamentuaren hitzarmen baten bidez kudeatzen da zerbitzua. Altsasuko Udalak 33.704,8 euroko ekarpena egiten du. Nafarroako Gobernuak, berriz, 15.174koa (2.098 euro gehiago). Foru administrazioak urtean pertsona bakoitzaren egonaldi bakarra ordaintzen du. Beraz, behin baino gehiagotan pasatzen badira, gastua udalaren bizkar gelditzen da. Garazi Urrestarazu Zubizarreta alkatea kexu azaldu da Nafarroako Gobernua gero eta irizpide zorrotzagoak jartzen ari delako.

Kaputxinoen komentu ondoan dago etxegabeen aterpea.

Profila

Estatuko gizona (%92), 34 eta 53 urte artekoa, etxerik ez duena eta kalean lo ez egiteko etxegabeen aterpea erabiltzen duena. Nafarroako hiru aterpeen erabiltzaileen profila da hori.

» Etxarri Aranatz

Udalak ikastaro eskaintza egin du

Izen ematea hilaren 15etik 26ra arte egin daiteke udaletxean edo kultura@etxarriaranatz.com web orrian

Etxarri Aranazko Udalaren ikasturte berrirako ikastaro eskaintza honakoa da: pintura, dantza latindarrak, yoga, soinketa lasaia, psikomotrizitatea, zirko tailerra, aerobik-a eta pilates-gap. Ikastaro bakoitzari buruzko ezaugarriak eta jakin beharrekoak udaletxean edo www.etxarriaranatz.com web orrian daude. Baita izena emateko inprimakiak ere. Udalak, bestalde, herriko kirol taldeen eskaintzen berri ere zabaldu du. Horien artean daude: futbola, txirrindularitza, pilota, pala, irristaketa, xakea, atletismoa, herri-kirolak, saskibaloia eta yoseikan budo.

» Irurtzun

ITBk agorrileko saioa prest du

Martinak eta Lorek aurkeztu duten Irurtzun Telebistako (ITB) zazpigarren saioan agorrileko hilari egiten diote errepasoa. Bi aurkezleek hasieran gaztigatu bezala, herrian inor gutxi gelditu da opor garaian. Horren lekuko Irurtzundarrek munduan atalerako ludiko bazter guztietatik jaso dituzten bideoak. Aurkezleek ere haien oporraldiaren berri eman dute. Antza, Martinak bere bihotzeko azukre koxkorra opatu du eta harekin hanka egin du.

sakana

Aldanondok abeltzainekin dituen zorrak salatu ditu EHNEk

Abeltzainekin duen zorra milioi bat eurokoa izan daitekeela salatu du sindikatuak. Tartean sakandarrak daude

EHNE sindikatuko ardi esne saileko arduradun Mikel Alzuartek astelehenean salatu zuenez, "ardi esne sektoreak bizi duen egoera larria da". Jakinarazi zuenez, "2011-2012 eta 2012-2013 kanpainan Aldanondo enpresari esnea entregatu zioten artzainetako batzuk orain dik ere ordainketak jaso gabe jarraitzen dute; 2013-2014 kanpainan industria honi esnea salduz jarraitu dutenen artean ere badira ordainketak jaso ez dituztenak".

Zorrak Idiazabal Jatorri Izendapeneko gazta egiteko esnea saltzen duten artzainengan, jatorri izendapenetik kanpo saldu dutenengan, eta behi esnea saltzen duten abeltzainengan du eragina. Azken horien artean abeltzain sakandarrak daude. Altzuartek salatu duenez, "Eusko Jaurlaritzak industria handiei dirutzak bideratzearen aldeko apustua egin du, makroproiektuak bultzatuz, sektorea monopolizatuz eta abeltzainak gestore gutxi batzuen esku utziz eta bidea itxi die gaztandegi txiki eta ertainei, egun sektorearen etorkizunean lagungarri izango lirateke en horiei".

Azienda larria larrean.

» Altsasu

San Juanen dantzan bukatu zuten.

Extremadura eguneko ospakizunak aurreratuta

La Encinaren XIV. kultur jarduerek hilaren 19an eta 20an izanen dute segida

Guadalupeko amaren eta Extremadurako eguna astelehenean ospatzen zen. Hori dela eta, iganderako La Encina elkarteak egitaraua prestatu zuen. San Juan ermitan meza izan zen eta ondoren auzatea. Neguan egoitzan txerrikiarekin egindako produktuak dastatu zituzten. La Encina elkarteak 90 bat pertsona elkartu zituen bazkaria hartu zuen. Ondoren, Iortia kultur gunean kantu eta dantza saioak izan ziren.

»

Sei abeltzain sakandar Lekunberrin sarituak

Igandean Lekunberrin Nekazari Eguna ospatu zen. Egitarauaren barruan Auritz arrazako zaldien morfologia-txapelketa zegoen, Altsasuk ferietan askotan hartu duena. Nafarroako zaldi arraza horretako txapelketan 32 ustiapenetako 150 animaliak parte hartu zuten. 10 mailetan banatua zegoen txapelketa eta abeltzain sakandarrek zazpitan lortu zituzten sariak.

Sakandarren sariak
Behorrak
2 urte arteko moxalak
1. SAT Gonzalez Percaz, Ziordia.
5. Martin Ezkurdia Barasoin, Arbizu.
2 eta 3 urte arteko moxalak.
4. eta 5. Legarra eta Rekalde, Zuhatzu.
3 eta 7 urte arteko behorrak.
1. Martin Ezkurdia Barasoain, Arbizu.
Zaldiak
2 urte arteko moxalak.
2. SAT Gonzalez Percaz, Ziordia.
3. Legarra eta Rekalde, Zuhatzu.
2 eta 3 urte arteko moxalak
1. Inmaculada Azpilikueta, Lakuntza.
3 eta 6 urte arteko zaldiak
2. Juan Javier Lanz Alegria, Lakuntza.
6 urte baino gehiagoko zaldiak.
2. Legarra eta Rekalde, Zuhatzu.
4. Jose Ramon Lopetegi Bakaikoa, Lakuntza.

Aurreko urteetan Altsasun egin izan da Auritz arrazako azienda lehiaketa.

SAKANA

Ibarreko dendariak elkartuko dira

Dendari talde bat lanean dago eta gauzak ongi badoaz azarorako indarrean izanen da Sakanako dendariak bilduko dituen elkartea

Nafarroa guztian eremu handiena hartuko duen dendari elkartea izanen da Sakanakoa. Elkartearen sustatzaileen asmoa ibarreko merkataritza dinamizatzeko Sakanako dendariei babesa ematea da. Aldi berean, sustatu nahi dituzten ekimenak gauzatzeko aholkularitza jasotzeko bitarteko bat izanen da elkartea.

Dendarien elkartea sustatu dutenen iritziz, "herriko dendariak elkartzea aparteko garrantzia du. Elkarte berria udalen eta mankomunitatearen solaskidea izatea nahi dute, kezka eta merkataritza egitasmoak ezagutarazteko". Sakanako Mankomunitateak Garapen Agentziaren bidez ibarreko dendariak batuko dituen elkartearen alde egin du. Ez soilik laguntza teknikoa emanez, baita ekonomikoa ere. Ekimena martxan jartzeko 3.000 euro eman ditu.

Orain arteko bidea

Altsasuko Dendari Elkarteko (ADE) zuzendaritzan argi ikusi zuten eurek herrian saltzen ez zutena jendeak ez zuela Sakanan erosten, Iruñean, Gasteizen, Donostian edo Goierrin baizik. Beste hausnarketa bat ere egin zuten ADEn: "sakandarrok ez dakigu aldameneko herrian zein eskaintza dagoen eta zuzenean kanpora erostera jotzen dugu. Eta agian bilatzen dugun produktu hori bideko herriren batean opatu dezakegu".

Ideia maiatzean hasi zen gauzatzen, ADEko ordezkariak Sakanako Garapen Agentziarekin eta Nafarroako Merkataritza Federazioarekin harremanetan jarri zirenean.

Elkartearen bulkatzaileek ibarreko dendari guztien datuak euren kabuz jaso zituzten eta federazioaren bidez, garilean, bilerara deitu zituzten. Utzuganen, Sakanako Garapen Gunean, sektore eta herri guztietako dendariak elkartu ziren. Iker Manterola (Sakanako garapen agentea), Alberto Anguiano (ADEko buru), Elisabet Azkarate (federazioko kudeatzailea) eta federazioko bi teknikari izan ziren bileran.

Elkartu ziren guztiak beharrezko ikusi zuten elkarrekin lanean aritzea eta lehenbailehen ibarrerako elkartea sortzea. Are gehiago, Sakanako Garapen Agentziaren eta ADEren babesa kontuan izanik. Bileran behin-behineko batzorde bat sortu zen, elkartea sortzeko. Zortzikote bat ari da lanean. Batzorde horretan hainbat herrietako eta denda-sektoreetako ordezkariak daude. Gaur egun estatutuak idazten ari dira eta elkartea azarorako indarrean izatea espero dute. Gainera, azarorako aurreikusi dute elkarrekin eginen duten aurreneko ekimena.

Behin elkartea eratu ondoren, Sakana guztiko dendariak elkartuko dituen elkartea izanen da. Eta haren barruan, ADE egonen da; Altsasukoa ez baita deseginen; "indar gehiago emateko eta elkarlanean aritzeko ".

Harremanetarako

Sakanako garapen agente Iker Manterolarengana jo beharra dago: 674 146 472 edo garapena@sakana-mank.com

Nafarroako Merkataritza Federazioko bi kide, Alberto Angiano eta Iker Manterola dendariei azalpenak ematen. UTZITAKOA

gertutik >>

Alberto Anguiano

ADEko presidentea

Dagoeneko zenbat dendarik eman dute izena elkarte berrian?
Sakana guztiko 52 dendarik. Irurtzun, Lakuntza, Etxarri, Olatzagutia... Baina, jendea jabetzean elkartea zertarako nahi dugun, izena emateko urratsa emanen du. Ez baita soilik deskontuak egiteko.

Zein sektoreko dendariak elkartu zarete?
Elikadura, oinetakoak, burdindegiak... denetarik. Baina merkataritza mota guztia elkartzea nahi genuke. Sakanan pertsiana bat zabaltzen duten guztiak elkartean bildu nahi genituzke. Zenbat eta gehiago elkartu gero eta indar gehiago egin dezakegu. Merkea izanen da elkarteko kide izatea, 15 euro hilean.

Sektorearen ibarreko ordezkari litzateke elkartea?
Bai. Sakanako Mankomunitateak eta udalek euren erabakiak hartzerakoan elkartea kontuan izatea nahi dugu. Hainbat ekimen antolatzen dituen eragilea izanen baikara. Merkataritza arloan gu solaskideak izatea. Esaterako, azalera handiko banaketa enpresa baten eskaintza jasotzen dutenean, lehenik eta behin gu kontsulta gaitzaten.
Bestalde, Mank-en eta udaletan industria batzordea dagoen moduan merkataritza lantzen duen beste bat izatea nahi genuke. Ez berria; dagoen bati lotzea. Zeren, bestela, zuzenean alkatearekin hitz egitera joan behar izaten dugu, gaur egun inolako batzordeetan ez delako merkataritza lantzen.

Instituzioen eta gizartearen aurrean eragile izan nahi duzue?
Bai. ADEk lortu duen moduan. Sakanako Plan Estrategikoan parte hartu dugu. Erabaki gunean gaude. Mugitzen gara eta ideiak ematen ditugu. Azken batean, herriak bizirik mantentzen dituztenak dendak dira. Merkataritzarik gabeko herri bat, herri hila da.

Erronkarik?
Ostalaritza. Arlo horretan ari direnak jabetu daitezela elkartu beharra dagoela. Nire ustez, aldameneko denda edo taberna ez da nire konpetentzia.

Zein egitasmo duzue?
Stock azoka, azarokotea eta bestelako ekimenak denek elkarrekin antolatu nahi ditugu. Batzuk ekimen ibiltariak izanen lirateke. Urtetik urtera herri batetik bestera aldatuko dena. Horrela sakandarrek ikusiko dute bere dendak mugitu egiten direla eta aparteko eskaintzak egiten dituztela: haurrendako eskaintza, kale animazioa...

Dantzariak oroigarriaren aurrean aurreskua dantzatu zuten. FERNANDO SAYAS

Otsoportillon gerra zibilean hildakoei omenaldia

Etxarri Aranazko Udalak eta Sakanako fusilatuen elkarteak 34. aldiz Otsoportillora deitu zuten iraileko aurreneko igandean. Deialdiarekin bat 300 bat pertsonek egin zuten. Guztiak ere estatu kolpearen ondoren eraildakoen memoria aldarrikatu eta haiek omentzeko. Uste da 200 bat pertsonek haien azkena Urbasako leizean izan zutela.

MOTZEAN

Balda-Artolaren gazta Ordizian finalista

Euskal Jaietako aparteko azoka egin zuten herenegun Ordizian, eta urteroko moduan, egitarauan gazta lehiaketa izan zen. 52 ekoizlek aurkeztu zituzten euren gaztak lehiaketara. 41. edizioa Segurako Karmele Muruak eskuratu zuen. Epaimahaiak finalerako aukeratutako 14 gazten artean Unanuko Balda-Artolarena zegoen.

Buruhandiak eman dituzte lehen kolpeak

Pasa den asteburuan mustu zituzten Etxeberrin buruhandiak. Hiru dira kalean aurrera eta atzera ibili direnak, jendea berotzeko asmoz: Porrotx, Deabrua eta Pirata. Oskar Alonso irurtzundarrak egin ditu. Baina hainbat etxeberritarren laguntza izan du konponketak, jantziak eta beste egiteko. Lana giro ederrean egin dute, gainera. Joan den urteko festetan sortutako burutazioa aurtengoa gauzatu dute etxeberriarrek.

FRANTSESA
2014-2015 ikasturterako matrikula epea zabalik
AHALEGIN
Arkangoa 3-1 · ALTSASU
672 162 036 · 944 167 012
aahalegin@yahoo.es

arbizuko udala

ARBIZUKO UDAL PLAN OROKORRA ETA LIZENTZIEN ETENDURA. HASIERAKO ONESPENA.

Arbizuko Udalak, 2014ko uztailaren 15ean egin bilkuran, hasiera batean onetsi zituen Arbizuko Udal Plan Orokorra eta hark dituen agiriak.

Bilkura berean onetsi zen lizentzien etendura, Arbizuko udal mugapearen barnean determinazio berriek orain arte indarra izan duen hirigintzako araubidea aldatzen duten lekuetan; hori guztia, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 69.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz. Hirigintza lizentzien etendura hori ez da gertatuko egin nahi diren obrak bi planeamenduen edukiekin bat heldu direnean, hau da, gaur egun indarra duen Udal Plan Orokorrarekin eta hasiera batean onetsitako Udal Plan Orokorrarekin.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 71. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, espedientea 2 hilabetez egonen da jendaurrean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita NAO 163, 2014-08-21); epe horretan, interesdunek eskura izanen dute espedientea Udalaren bulegoetan, egokiak iruditzen zaizkien alegazioak aurkez ditzaten.

Arbizun, 2014ko uztailaren 18an.
Alkatea: Miren Mendinueta Lakuntza.

ARBIZUKO UDALA

FESTAK
Altsasu:

>>Irailak 13, larunbata
10:30ean 2013ko kintari harrera eta zapien janz¬tea udaletxe parean. Hamaiketakoa gaztetxean (Peñen Batzordea eta AGA).
12:00etan Festen eztanda handia: Suziri jaurtike¬ta, ezkila-jotzea, erraldoi eta buruhandiak, Altsasuko gaita-jotzaile eta abesbatzak, pe¬ñen desfilea eta Etorkizuna dantza taldearen emanaldia.
Ondoren, Custom taldearekin dantzaldia Foru plazan eta Erkudengo Ama abesbatza eta peñen txarangarekin kalejirak.
16:30etik 20:00etara Peñen kafea eta kalejira Foru Pla¬zan. (Peñen Batzordea).
17:00etan Eskolarteko txirrindularitza proba. Irteera eta helmuga: Amandrea kalea.
Ondotik, ginkana Txioka aurreko pistan. (Burunda TT, Udalaren laguntzarekin).
18:00etan Jokoak gaztetxe ondoan. (AGA).
18:00etan XLV. Otadiako Kristo Deuna pilota txapelketako finalak, Burunda pilotalekuan. (Altsasuko Kirol Elkartea, Udalaren laguntzarekin).
18:00etan Clown-antzerkia The incredible box, La Tal taldearekin Iortiako zabalgunean.
19:30ean Dantzaldia Custom taldearekin Foru Plazan.
19:30ean Buruhandiak eta japoniarbonben jaurtiketa.
20:15etik 21:15era Peñen jaitsiera eta plazara iristea.
21:30ean Larrain dantza eta Altsasuko Zortzikoa Foru Plazan.
22:00etan Zezensuzkoa.
22:00etatik 24:00etara Gazte gauak Dj Sergiorekin Lavaderon.
23:30etik 3:30era kontzertuak: Los Zopilotes Txirriaus, Xaiko eta Rock Kalean, Foru plazan.

>>Irailak 14, domeka
9:00etan Dianak Zangitu fanfarrearekin.
11:45ean Zubeztia elkarteak eskainitako Hamaiketakoa plazan.
12:00etan Azken ezkila-jotzea eta zortzikoa.
12:30ean Erraldoi eta buruhandien konpartsaren kalejira, Iortiatik hasita.
13:00etan Eguerdiko kontzertua: Trasteando taldea, Foru plazan.
15:00etan Herri bazkaria, Iortiako zabalgunean. Bazkalostean, Enrike Zelaiaren kontzertua. Segidan, Sakaranga txaranga eta Peñen KALEJIRA.
16:30etik 20:00etara Peñen kafea eta kalejira Foru Pla¬zan. (Peñen Batzordea).
19:30ean auzatea ibilbidean zehar.
17:30ean Sokamuturra etxeko txikiendako Zelan¬din. (Peñen batzordea).
19:30ean Buruhandiak eta japoniarbonben jaurtiketa.
20:00etan Arrasate Big Band kontzertua Foru Plazan.
20:15etik 21:15era Peñen jaitsiera eta plazara iristea.
21:30ean Larrain dantza eta Altsasuko Zortzikoa Foru Plazan.
22:00etan Zezensuzkoa.
22:00etatik 24:00etara Gazte gauak Dj Sergiorekin Lavaderon.
22:00etatik 3:00etara 70ko hamarkadako gaua: Los Diamantes taldea eta garaiko Dj altsasurrak Foru Plazan.

>>Irailak 15, astelehena
9:00etan Dianak Zangitu fanfarrearekin.
9:00etan Dianak Incansables txarangarekin. (Muthiko peña).
10:00etan LXXXV. Altsasu Txirrindula Lasterketa, elite eta 23 azp. mailak. (Altsasuko Kirol Elkartea, Udalaren la¬guntzarekin).
11:30ean La Encina elkarteak eskainitako

hamaiketakoa plazan.
12:00etan Dragoncio Biñefarreko Titiriteroekin, Ior¬tiako zabalgunean.
13:00etan Eguerdiko kontzertua: Disei, pop-lirikoa, Foru plazan.
15:00etan Muthiko peñaren XV. urteurren bazkaria.
16:30etik 20:00etara Peñen kafea eta kalejira Foru Pla¬zan. (Peñen Batzordea).
19:30ean auzatea ibilbidean zehar.
17:30ean XXIV. playback txapelketa Foru plazan. Ondotik, txokolate jana txikiendako, Zubiondo elkarteak antolatua.
18:30ean Antzerkia: Como una cabra Fulanito eta Menganitorekin Foru plazan.
19:30ean Buruhandiak eta japoniarbonben jaurtiketa.
20:00etan Elegancia Mexicana mariatxia Foru Pla¬zan.
20:15etik 21:15era Peñen jaitsiera eta plazara iristea.
21:30ean Larrain dantza eta Altsasuko Zortzikoa Foru Plazan.
22:00etan Zezensuzkoa.
22:00etatik 2:00etara Kantaitan afarikontzertua Foru-plazan. Herri afaria, afalondoan euskal kan¬tak Benta Zaharreko Mutiko Alaiak girotua. (EHE).
22:00etatik 24:00etara Gazte gauak Dj Sergiorekin Lavaderon.
2:00etan Zezen mekanikoa, Foru plazan. (Peñen Batzordea).

>>Irailak 16, asteartea
9:00etan Dianak Altsasuko gaita-jotzaileekin.
11:30etik 13:30era Txikiendako parkea: puzgarriak, giza fut¬bolina, pendulua, zezen mekanikoa, txikie¬nendako ludoteka, apar festa eta txu-txu trena, Zumalakarregi plazan.
11:30ean Beti Jaten elkarteak eskainitako hamaiketakoa plazan.
13:00etan Eguerdiko kontzertua:, Minore

taldearekin, Foru Plazan.
16:30etik 20:00etara Peñen kafea eta kalejira Foru Pla¬zan. (Peñen Batzordea).
19:30ean auzatea ibilbidean zehar.
16:30etik 19:00etara Txikiendako parkea, Zumalakarregi pla¬zan.
18:00etan Pilota jaialdia, partida profesionalak, Burunda pilotalekuan.
19:00etan Taekwondo erakustaldia udaletxea¬ren aurrean. (Bargagain Altsasuko taldea).
19:30etik 20:00etara Buruhandiak eta japoniar-bonben jaurtiketa.
20:00etan Kontzertua: Mochila 21, Foru Plazan.
20:15etik 21:15era Peñen jaitsiera eta plazara iristea.
21:30ean Larrain dantza eta Altsasuko Zortzikoa Foru Plazan.
22:00etan Zezensuzkoa.
22:00etatik 24:00etara Gazte gauak Dj Sergiorekin Lavaderon.
22:00etan Herriko taldeen gaua: Haize Berriak banda, Revolta, Arrebote eta La viuda negra. Foru Plazan.

>> Irailak 17, asteazkena

9:00etan Dianak Altsasuko gaita-jotzaileekin.
11:30ean Amandrea elkarteak eskainitako hamaiketakoa plazan,
11:30etik 14:00etara Jokoak, Baratzako bidea plazan.
12:00etan Herriko nagusiei abardia jarriko zaie etxean, Musika eskolako fanfarreak girotuko du omenaldia.
13:00etan Eguerdiko kontzertua: Azabache taldea¬, Foru plazan.
14:00etatik 20:00etara Nagusien omenezko bazkaria Burun¬da pilotalekuan. Bazkalostean, jotak eta DANTZALDIA Txema eta Cristina bikotearekin.
15:00etan Peñen bazkaria, Foru Plazan. (Peñen Batzordea).
16:30etik 20:15era Peñen kafea, kalejira eta poteoa herriko elkarteetan barna. Auzatea.
18:00etan Antzerkia: Txarlestrup, Foru plazan.
19:00etatik 22:00etara Dantzaldai Azabache taldearekin, Foru plazan.
19:30etik 20:00etara Buruhandiak eta japoniar-bonben jaurtiketa.
20:15etik 21:15era Peñen jaitsiera eta plazara iristea.
21:30ean Larrain dantza eta Altsasuko Zortzikoa Foru Plazan.
22:00etan Zezensuzkoa.
22:00etan Ogitarteko jatea, sagardoa eta trikitixak girotua. (Peñen Batzordea).
23:30ean Festen agurra eta azken petardo-sorta udaletxean. Ondoren peñen kalejira.

Elikagai bankuak festen hasierako etxajua piztuko du

Rosa Mari Goikoetxea Imaz eta Celia Crespo Agirre, Altsasuko elikagai bankuko boluntarioek emanen diote hasiera festei. Etxajua pizteko ardura Ezker Batukoa da eta koalizioak herriko erakunderen bati ematea erabaki zuen, haien lana aitortzeko. Elikagai bankuko 15 boluntarioen artean ezustekoa izan zen eskaintza eta "ilusioz" hartu dute.

Gaur egun hilean bitan banatzen dituzte boluntarioek jakiak. Euren egitekoa Nafarroako Elikagai Bankutik (hilero) eta Europar Batasunetik (lau hilero) jasotako jakiak udalaren kamioitik deskargatzea, biltegiratzea, jakiak kutxetan banatzea, haiek banatzea eta banaketa kontrolatzea. Hartzaileak 329 altsasuar dira, 105 familia unitate (erdia bertan jaioak eta beste erdia altsasuar berriak).

Rosa Marik eta Celiak piztuko dute etxajua.

Duela hilabete eta erdi Burunda mendebaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuarekin elkarlanean ari dira. Hala, teknikariek familien egoera ebaluatuko dute eta boluntarioak banaketaz arduratuko dira soilik.

Festa parekideez gozatzeko deia egin du udalak

Jai giroan emakumeenganako errespetua eskatu du

Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilguneak INAFIren Festetan berdintasuna lortzearen aldeko udalentzako kanpainarekin bat egin du. Festetan emakumeenganako errespetuan oinarritutako kanpaina sustatuko du, emakumeenganako sexu eraso eta jazarpenen prebentziorako eta hauen aurka herritargoa sentsibilizatzeko. Festa guneak, eraso eta jazarpen sexistarik gabeko guneak izan daitezen nahi da, errespetuz jokatzeko eskatuz.

636 458 016

Festa egunetan Udaltzaingoak 24 orduko zerbitzua eskainiko du, eraso sexualen aurrean deitu ahal izateko.

FESTAK
Altsasu:

Herri mugimenduaren egitaraua

Kolektiboek beste egitarau bat ondu dute

Gaur abiatzen da antolatu duten egitaraua

Altsasuko hainbat kolektibok festetarako propio egitaraua osatu dute. Ernai, Euskal Herrian Euskaraz, presoen eskubideen aldeko mugimendua, Bilgune Feminista, Askapena, Altsasuko Gazte Asanblada, Ospa eta Altsasuko Peñak dira langintza hori hartu dutenak. Egitarauaren aurkezpenean adierazi zutenez, "herritik eta herriarendako" hainbat ekimen antolatu dituzte. Festak "edukiz jantzi" nahi izan dute, "parte hartzetik sortu behar direla ulertzen dugu eta balore eraldatzaileetan oinarrituko diren ekintzak eta egitaraua osatuz", eskubideen urraketak salatuz eta aldarrikatuz.

Herri mugimentuetako kideak egitaraua aurkezten. UTZITAKOA

Herri mugimenduko kideek "festa eredu parte hartzailean sinesten" dute, "herritarron inplikazioz herriko jaietan giro alai eta sortzailean eraiki nahi izan dugulako. Denon artean egiten ditugu jaiak eta lan asko ematen badute ere gustura egiten dugu lan. Parte hartzen dugun eragileok urtean zehar gure lanak aurrera eramateko bitartekoa delako". Bestalde, kolektiboetatik gaineratu dute "herri parekide baten bidean jai eraikitzaileen aldeko apustua" egiten dutela.

Herri mugimenduaren egitaraua

>>Irailak 12, ostirala: Jaiak herritik herriarentzat
18:00etan Txoznen irekiera.
19:00etan Manifa-tukada.
20:00etan Txoznen mustutzea eta japoniar bonbak.
21:30ean Kontzertuak: Habeas Corpus eta Zartako-k.

>>Irailak 13, larunbata: Presoen elkartasun eguna
10:30ean Hamaiketakoa gaztetxean.
12:00etan Txupinazoa.
13:00etan Elkartasun brindisa txoznan.
14:30ean Elkartasun bazkaria plazan.
18:00etan Alde Hemendik argazkia.
18:30ean Jokoak gaztetxean.
20:00etan Bajadika Zumalakarregi plazatik.
21:30ean Motxaila Band elektrotxaranga.
22:30ean Fermin Valentzia karpan.
23:00etan Zopilotes Txirriaos + Xaiko plazan.

>>Irailak 14, domenka: Gazte eguna
14:00etan Herri bazkaria.
17:30ean #28ak ere libre. Auzipetuei elkartasuna adierazteko herri argazkia.
18:00etan Bakillak Zelandin.
20:00etan Bajadika Zumalakarregi plazatik.
22:00etan Gazte afaria gaztetxean.
02:00etan Zumba maratoia karpan.

>>Irailak 15, astelehena
18:30ean Gazte desafioa gaztetxean.
20:00etan Bajadika Zumalakarregi plazatik.
22:00etan EHE afaria eta ondoren Kantaitan, plazan.
02:00etan Zezen mekanikoa plazan.

>>Irailak 16, asteartea
18:00etan Irrien lagunak: Irri ipuinak Ane piratarekin. Karpan.
20:00etan Bajadika Zumalakarregi plazatik.

>>Irailak 17, asteazkena
14:30ean Peñen bazkaria plazan.
18:00etan Elkarte poteoa.
20:00etan Bajadika Zumalakarregi plazatik.
22:00etan Sagardotegia Gure Etxean.
00:00etan Festen amaiera.
01:30ean Play Backa karpan.

*Oharra: Karpan egunero afariak! Eguraldi txarra eginez gero, ekintzak bertan burutuko dira.

SAKANA

UEMAk Parlamentura joateko ezezkoa salatu du

Arbizuarrak eliza ondoko parkean. ARTXIBOA

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kide diren Nafarroako udalek Nafarroako Parlamentuan agerraldia egitea eskatu zuten. Aurrekoetan bezala, euren udalerrietan euskarak bizi duen egoera salatu eta hura zuzentzeko neurriak helarazi nahi zizkieten talde parlamentarioei. Baina, eskaerari ezezkoa eman zioten UPNk, PSNk eta PPk. Argudiatu zuten mankomunitatearen egoitza Bizkaian dagoela eta Nafarroarekin ez duela zerikusirik.

Mankomunitateko Zuzendaritza Batzordeko kide diren Berako Ion Abril eta Etxarriko Eneka Maizek nabarmendu dutenez, "Nafarroako Gobernuak gure herrietan daukagun errealitate soziolingusitikoa onartu gabe jarraitzen du". Abrilek eta Maizek salatu dutenez, nagusiki euskaraz bizi diren udalerrietan ere euskarazko zerbitzu publikorik ez daude bermatuta. Parlamentuko agerraldia ukatzea "beto" gisa hartu dute, baina horren aurrean erakundearen helburuak betetzeko, nahi duten guztiekin elkarlanean aritzeko prest azaldu dira.

UEMA

Gaur egun 72 udalek osatzen dute mankomunitatea, haietatik 14 nafarrak dira. Horien artean daude Arbizu eta Etxarri Aranatz. Erakundearen helburuak dira: administrazio publikoa euskaldundu, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatu eta euskararen arnasguneak sendotu eta hedatzeko. UEMAko udaletan egiaztatu da administrazio publikoan ere euskaraz funtziona daitekeela.

>> Etxarri Aranatz

Etxarriarrak Kataluniako herri galdeketen antolatzaileei egindako omenaldian

Joxi Bakaikoa alkatea eta A13 plataformako Manu Gomez Arenys de Munt-en izan ziren

Duela bost urteko Diadatik bi egunera (irailak 13) Maresme eskualdeko Arenys de Munt herrian Kataluniaren indepententziari buruzko aurreneko herri galdeketa egin zen. Ondoren Kataluniako 554 herritan egin ziren galdeketak. Haiek guztiak antolatzen ibili ziren pertsona eta plataformak omentzeko ekitaldia antolatu zuten igandean Arenys de Munten.

Etxarri Aranatzen apirilaren 13an egin zen herri galdeketa antolatu zuen plataformako kide Manu Gomez eta Etxarri Aranazko alkate Joxi Bakaikoa han izan ziren. Lehenak Etxarri Aranazko esperientziaren inguruko hitzaldia eman zuen. Biek ere prentsari adierazpenak egin zizkioten gainera. Katalunian eta Euskal Herrian izan ziren lehen herri galdeketetako herrien artean dagoen harremanaren isla izan zen atzokoa.

Lehen herri galdeketa hartako sustatzailea Josep Manel Ximenis izan zen eta atzokoan gogora ekarri zuen boluntarioek gainditu behar izan zituzten "beldur ugariak, oztopoak eta udalen eta Espainiako Gobernuaren mehatxuak". Milioi bat pertsonek independentziari baiezkoa edo ezezkoa emateko aukera izan zutela nabarmendu zuen, gaineratuz, "galdeketa haiek gaur egungo egoera ekarri dute. Lider politikoek euren beldurrak gainditu beharko dituzte azaroaren 9an bozkatu ahal izateko".

Etxarriarrak kataluniarrekin. Atzo sakandar gehiago izan ziren Diadan.

» Altsasu

AGAko kideen prentsaurrekoa.

Gazte Asanbladak Foruzaingoaren jokabidea salatu zuen

Gaztetxean sartzen saiatu zirela eta kriminalizazio saioa salatu zuen

Agorrilaren 12an, 14:00etan, Foruzaingoko bi patruila Altsasuko gaztetxean sartzen saiatu zen. Barruan zeuden gazteak barruan itxi ziren, agindu judizialik gabe sartzerik ez zutela gaztigatuz agenteak. Ordu bat lehenago Ernai gazte mugimenduak Israelgo produktuak saltzearen kontrako protestaldia egin zuen Eroskin (Gazaren kontrako erasoen garaia zen). Altsasuko Gazte Asanbladak (AGA) argi utzi nahi izan du protesta hori ez zutela haiek egin. Foruzainen jokabidearen atzean AGAk "UPNren gaztetxeak kriminalizatzeko saio berri bat" ikusi zuen. Gertaera horren ondorengo astean Foruzaingoaen jarduna (kontrolak, identifikazioak eta beste) handitu zela salatu zuten AGAtik. "Polizia horrek duen agintea gehiegikeriaz erabiltzen du Altsasuko herri mugimendua zapatu, kikildu, kaltetu eta kriminalizatzeko".

AGAtik gogora ekarri dute 2010eko ilbeltzaren 11n gaztetxean izandako sute baten ondoren Foruzaingoak gaztetxean egindako miaketa. "Legez kanpoko miaketa harekin gure kontra jo, gaztetxea kriminalizatzeko eta, zeinek daki, agian ixteko".

GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 564 355
679 160 116
(24 ORDUZ)

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

www.tanatoriosirache.com

Hainbat aukera

Galdetu

948 564 275

Enekoitz Mendiola Barandalla

Eskerrik asko
bidean erakutsitako guztiagatik.

Lagunak

Alberto Artola Gonzalez

Betirako gure bihotzean
egonen zara.
Eskerrik asko.

Etxekoak
Lakuntza

Oroigarriak egiten ditugu
Nahi duzun argazki eta testuarekin
Foru plaza 23-1 Altsasu · 948 564 275 · argi@guaixe.net
Guaixe KOMUNIKAZIOA

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK
2 TEKNOLOGIA
3 LANA/NEGOZIOAK
4 DENETARIK
5 IBILGAILUAK
6 HARREMANAK
7 AISIA/KIROLA
8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

Lana/ Negozioak

LAN ESKAERA

Ingeles klaseak Urdiainen. Informazioa 626 34 02 76.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMAN

Lizarragan pisua alokairuan. Altzariz hornituta, sukalde-jangela, 3 logela, komuna eta terraza. Leiho zabalak. Hots egin 609 33 16 59 telefonora.

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Etxarri Aranazko Larraza taberna. Eskualdatzen da. Interesatuek deitu 948 56 70 71 telefonora.

Oparitakoak

3 arratoi txakurkumeak. Oparitzen dira. Hots egin 678 80 37 34 telefonora.

Ikastaroak

Ikastaroak Olaztin. Yoga, pilates, aerodance, indoor zikloa, mantentze soinketa. Izena emateak irailaren 8tik 20ra Erburua kiroldegian edo 948 56 42 12 telefonoan. Informazio gehiago: www.olazti.com

Komunikazioa, autoestimoa eta emozioen kontrolen taillera. Lara Ahimsa Ribera (jungiar psikologoa eta idazlea) eta Olga Martinez de Lagran (psikologian doktorea eta osasun-psikologoa)ren eskutik. Urrian, Etxarriko Kultur Etxean. Deitu 639 40 81 18 telefonora.

AES. Berria Enpresarako ingelera, irailean; "Ingelera elkarrizketa praktikak", Arbizun, 40 ordu, azaroa-abendua;; ETEi aplikatutako trebatasun pertsonalak, Arbizun, abenduan "Planoen interpretazioa eta ordenagailuz lagundutako diseinua", Altsasu, 60 ordu, urria-abendua; "Adimen emozionala", Arbizun, 30 ordu, iraila-urria; Informazio gehiago: 948 46 83 07 eta formacion@aesakana.com

IFESek hainbat ikastaro antolatu ditu Iruñean. Informazio gehiago www.ifes.es, 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea http://www.ifes.es

Forem Navarra – CCOO ikastaroak. Informazio gehiago: www.foremnavarra.org

AIN-consulting ikastaroak. Informazio gehiago: 948 42 11 23 eta formacion.ain.es/

Oharrak

Dohaneko aurkezpen hitzaldi informatiboa. "Ikasi zure burua elikatzen eta antsietatea kontrolatzeko teknikak". Irailaren 24an 19.00etan Etxarriko Xalok Zentroan. Hizlariak: Ana Carmen Huarte eta Olga Martinez de Lagran. Asistentzia konfirmatu 639 40 81 18 telefonoan.

Saharaztan boletoen zenbaki sarituak. 1213-2151-2385-0109-3101-1026-3100-3173-0964. Mila esker zuen laguntzagatik.

Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko. Diru bilketa hasi dute, Ahotsa behar dugu lelopean. Ekarpenak kontu korrontean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo http://goteo.org/project/ahotsa-behar-dugu?lang=eu bidez egin.

Tartalariendako laguntza. Laguntza ekonomikoa Laboral kutxa 3035 0068 08 0680058591 korrontean sartu daiteke.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabaltzen eta finantzatzen: http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Haurraren erritmoak errespetatzen dituen eskola librea nahi baduzu. Deitu 661- 59 04 20 telefonora.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

Sukaldaritza - trukea. Informazio gehiago larrezabaldk@inigoaritza.com

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosfosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.net.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeako eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoen inmatrikulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkartea eta denda. Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorrik. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olioa, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokolatea, haragia, behi esne eta esne begetalak, eztia, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarrin jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenetan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalei, eta baita etorkin beraiei ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzen, astearteetan Irurtzunen eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigrazioa@sakanamank.com posta elektronikoan.

Gazteendako sexualitate aholkularitza. Hileko lehen astearteetan, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean (Burunda kaletik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

JAIOTZAK

- **Eneko Martinez Pinto,** abuztuaren 7an Ziordian.
- **Ziortza Lopez Unzurrunzaga,** abuztuaren 30ean Olaztin.
- **Izar Vaqueriza Vicente,** irailaren 4an Etxarri Aranatzen.

EZKONTZAK

- **Yosu Ziriza Diaz eta Mari Angeles Cambero Muñoz,** abuztuaren 30ean Altsasun.
- **Hiart Leitza Razkin eta Pedro Latorre Beroiz,** irailaren 6an Arbizun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

kirola >>

TRIATLOIA

MAIZA AITA-SEMEA ZUMAIAN: Igandean 358 triatleten artean Jon Unanuek irabazitako 8. Zumaiako Sprint Triatloian Juan Luis Maiza 110.a sailkatu zen (1:12:32). Proba herrikoian Iñigo Maiza 11.postuan iritsi zen helmugara (40:05).

Kiroldegia

Musikoterapia eta psikomotrizitatea ez gaituendako

Mank-ek antolatuta, irailaren 26ra arte eman ahal da izena

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Sakanako Ez Gaituen Elkartearen laguntzarekin, ez gaituendako musikoterapia eta psikomotrizitate ikastaroa antolatu du. Ikastaroak ez gaitasunen bat daukaten Sakanako edozein pertsonei daude bideratuta.

ikastaroa Altsasuko Intxostiapunta gaztegunean eskainiko da. Ordu bateko saioa izanen da, larunbat goizetan, hilabetean bitan, 10:00etatik aurrera eta Maite Ulazia monitoreak eskainia. Ondoko egunetan: urriak 4, 18; azaroak 8, 22; abenduak 6, 13; ilbeltzak 10, 24; otsailak 7, 21; martxoak 7, 14; apribilak 11, 25, maiatzak 9, 25 eta ekainak 6, 13.

Izena ematea zabalik dago irailaren 26ra arte, Mank-eko kirol zerbitzuan (948 464 866 edo kirolak@sakanamank.com). Sakanako Ez Gaituen Elkartekoak direnei elkarteak ordaindu kodie ikastaroa. Gainontzekoek, aldiz, 50 euro ordaindu beharko dituzte.

Mendi lasterketak

Uharte Arakilgo km bertikala ate joka

Irailaren 21ean izango da eta izena ematea zabalik dago irailaren 17ra arte

Uharte Arakilgo Aralar Mendi taldeak antolatuta, irailaren 21ean jokatuko da VI. Uharte Arakil-Beriain km bertikala. Proba kronometratuan, Uhartetik aterata 1.494 metrotan kokatua dagoen Beriaingo San Donato ermitara iritsi beharko dira korrikalariak. 5 km-ko proba da, 1.023 metroko desnibelarekin eta sekulako maldekin.

WWW.UHARTEARAKIL-BERIAIN.COM EDO WWW.KIROLPROBAK.COM

Izena ematea zabalik dago irailaren 17ra arte, ondoko web guneetan. Momentuz 80 korrikalari daude izena emanda.

Pilota

Bihar 45. Otadiko Kristo Deuna Pilota Torneoaren finala jokatuko da Altsasun, 18:00etan. Bakaikoak eta Gorritik txapela janzteko aukera dute

Ea txapelak Sakanan gelditzen diren

Ordua iritsi da. Bi finalerdi jokatu ondoren, bihar, larunbatean, Sociedad Deportiva Alsasuak (SDA) antolatutako 45. Otadiko Kristo Deuna Pilota Torneoaren final handiak jokatuko dira Altsasuko Burunda pilotalekuan, Altsasuko festen lehen egunarekin batera, 18:00etan. Zeresana emango dute finalek, puntako pilotariak ariko baitira kantxan.

Jubeniletan Espinal eta Olaizolaren arteko partida interesgarria espero da. Ordezkari sakandarrak ere izanen ditugu. 22 urtez azpikoan, lau t´erdian, Errandonearen kontra ariko da Joanes Bakaikoa etxarriarra. Lehia bizia espero da, afizionatuetan izena egiten ari diren bi pilotariren arteko lehia izanen baita hau. Azkenik, elite mailan Elezkano I.arekin osatuko du bikoa Gorriti uhartearrak, Azpiri eta Irusta bizkaitarren kontra aritzeko. Ea txapelak Sakanan gelditzen diren.

Aurreko larunbatean jokatutako bigarren finalerdietan, jubeniletan Olaizolak 18-5 irabazi zion Labakari. Erraz gailendu zen Olaizola. 22 urtez azpian, lau tęerdian, Joanes Bakaikoa etxarriarra Larunberen kontra aritu zen. Nahiz eta partida parez pare hasi, Etxarri Aranazko pilotaria gutxinaka gailentzen hasi zen, eta 18-11 irabazi zuen. Bukatzeko, senior mailako binakakoan hasieran Ojuel-Linzoainek 6 tantoko errenta izatea lortu zuten, baina Azpiri eta Irusta bizkaitarrek bigarren zati ikusgarria egin zuten eta, azkenean, 22-17 irabazi zuten.

Aurreko asteko finalerdietako partida. SDA

Altsasuko 45. Otadiko Kristo Deuna Pilota Torneoaren **finalak**

Jubeniletako buruz burukoa: Espinal / Olaizola

22 urtez azpiko lau t´erdia: Errandonea / Bakaikoa

Elite mailako binakakoa: Elezkano I.a-Gorriti / Azpiri-Irusta

Luxuzko partida Altsasun

Irujo-Zubieta vs Ezkurdia-Zabaleta asteartean Burundan, 18:00etan

Aspek jaialdi zoragarria prestatu du Altsasuko festetarako, asteartean, irailaren 16an, 18:00etan, Burunda pilotalekuan. Jaka-Pascual eta Altuna III.a-Urruzola pilotarien arteko lehiak zabalduko du partida, eta partida nagusian puntan dabiltzan hiru pilotari sakandarrak lanean ikusteko aukera izango dugu, Irujo lagun dutela. Kasu honetan Zubietarekin ariko da Irujo, Ezkurdiaren eta asteburuan Irujorekin batera Urrutikoetxea eta Albisuren kontra Lekeitioko Torneoa 22-19 irabaztetik datorren Zabaletaren kontra aritzeko. Lehia lehiatu eta entretenigarria espero da. Kantxako sarrerak 30 euroko prezioa du, eta harmailakoak 15 eurokoa. Erreserbak ondoko telefonoan egin daitezke: 667 487 273 (Isabel). Txarteldegia asteartean zabalduko da, partidaren egunean, 16:00etatik aurrera.

Alberto Ongay Mexikoko Pilota Mundialetan

Gaur abiatuko da, Mexikotik 80 km-ra dagoen Tolucako Zinacantepec herrian, Pilota Mundiala. Espainiako selekzioarekin aritu beharko dute nafarrek. Sakandar bat dago, Alberto Ongay, Satrustegiko pilotari profesional ohia. Duela 4 urte Paben jokatutako mundialetan Espainiak irabazi zuen eta titulu hori defendatzera aterako dira. 46 pilotari ditu aipatu selekzioak, horietatik 19 nafar. Berarekin batera Frantzia da faborito nagusiena, eta Mexiko ere. Mundialeko hainbat partida internetez jarraitu ahal izango dira, streaming bidez, www.fipv.net eta www.pelotavasca2014.mx web orrietan.

Aizkora

Floren Nazabal.

Euskal Herriko txapela helburu

Euskal Herriko Maila Nagusiko kanporaketa jokatuko du bihar Floren Nazabalek Aian, 22:00etan

Euskal Herriko lehen mailako 6 txapel ditu Floren Nazabalek eta zazpigarrena janzteko bidea hasiko du bihar. Izan ere, bihar, irailaren 13an, Aian Euskal Herriko maila nagusiko aizkora txapelketako kanporaketa jokatuko da, gaueko 22:00etan. Aurreko urtean Etxarri Aranazko aizkolaria ez zen fin ibili eta pronostiko guztiek huts egin zuten, Iñaki Azurmendik irabazi baitzuen txapelketa. Aurten sasoiko dago Etxarrikoa eta bere zazpigarren txapela izango litzatekeena lortzeko dena emango du. Bera da faborito nagusiena, baina gainontzeko aizkolarien maila ere izugarria da eta lehia estua espero da.

Aizkolariek egin beharreko lana ondokoa izango da: 54 ontzako bi enbor, 60 ontzako bi enbor eta 72 ontzako bi enbor erdibitzea. Lehen sei onenak oraindik zehaztu ez den final handirako sailkatuko dira.

Kanporaketako **aizkolariak**

Aitzol Atutxa, Iñaki Azurmendi, Joseba Otaegi, Jesus Mari Mujika, Jose Mari Olasagasti, Unai Otaño, Jon Irazu, Floren Nazabal, Jon Rekondo, Ander Erasun, Ruben Saralegi eta Juan Jose Lopez Azpilikueta.

Futbola

Altsasuk lider hasi du denboraldia

Erregional mailan 22 jokalariz osatutako talde gaztea zuzenduko dute Javier Fernandezek eta Alfonso Nuñezek

Aurreko asteburuan hasi zen erregional mailako 2014-2015 liga. Altsasuk Mutilberari 0-4 irabaziz hasi du liga, eta denboraldiko lehen liderra da. "Aste honetan bertan galduko dugu lidergoa, atseden jardunaldia baitugu" adierazi digu, irribarrez Sociedad Deportiva Alsasuako lehendakari Pablo Lopez Colinak.

Aurten entrenatzaile berriak izango ditu Altsasuk, Javier Fernandez eta Alfonso Nuñez. "Beste ziklo bati hasiera emango diogu" dio presidenteak. Plantillaren oinarria aurreko urteko taldea da. "Jubeniletatik Mikel Corchero, Jon Artigas eta Imanol Reparazek egin dute salto erregionaletara. Bestalde, Iñaki Grajeras eta Imanol Andoni Beramendi taldera itzuli dira eta lauzpabost baja izan ditugu, baina, bestela, ez dago aldaketarik" gaineratu du presidenteak. Altsasu talde gaztea da. "Gaztea, baina kalitatea duena" Lopezen esanetan.

Altsasu 2014-2015, erregional mailako taldea

Jokalariak: Ekhi Etxeberria (93), Iñaki Grajeras (94), Asier Izagirre (94), Jon Lapuente (93), Mikel Corchero (95), Iñaki Mendoza (89), Ismael Santamarta (94), Jon Artigas (95), Mikel Lopez (92), Javier Fernandez (94), Jon Ander Fernandez (91), Iñaki Berastegi (94), Darlin Quezada (94), Yoel Barreiro (89), Xabier Lopez (86), Mikel Rivero (94), David Fernandez (88), Aitor Saez de Asteasu (94), Andoni Barrena (92), Imanol Reparaz (95), Andoni Beramendi (94) eta Dario Moreno (94). **Entrenatzaileak:** Javier Fernandez eta Alfonso Nuñez. **Materialaren arduraduna:** Jacinto Borrega. Argazkia: Guzman Lobo.

Preferentera igo

Aurten Nafarroako futbol federazioak liga berregituratu du; hurrengo denboraldian, 2015-2016an, 3. mailaren azpitik kategoria berria egongo da, kategoria autonomikoa, eta haren azpitik preferente maila eta erregional maila. Aurten erregional mailako 4 multzoetan lehen sailkatzen diren 5 taldeak zuzenean igoko dira preferente mailara. "Horrela, preferentera igotzeko aukera handiagoa izango da aurten, orain arte soilik lehena igotzen baitzen. Ea lehendabiziko 5 taldeen artean sailkatzen garen eta preferentera igo" dio Lopezek. Lopezi ez zaio sobera gustatzen kategoria berria sortzearen ideia. "3. mailara igotzea ia ezinezkoa izango da. Aldaketa honekin, gehiago dugu galtzeko" azaltzen du.

Erregional mailan 4. multzoan ariko da Altsasu, Etxarrirekin eta beste 16 talderekin batera. Talde gehienak maila berean ariko direla uste du altsasuarrak, paretsu, eta, akaso, guztien gainetik San Jorge ikusten du.

Ongi hasi dira gauzak Altsasurendako, garaipenarekin. "Aurreko urtean bikain hasi ginen, lehendabiziko postuetan, baina Etxarriren kontra galdu ondoren behera egin genuen eta hondoa jo. Gero sailkapenaren erdialdean bukatu genuen. Ea, aurten, goialdean sailkatu eta preferentera igotzeko aukera dugun. Baina horretarako gogor egin beharko dugu lan" ondorioztatu du Pablo Lopezek. Altsasu klubak duen egitura sendoarekin –13 talde, sekulako harrobia–, Altsasuk goiko kategorietan egon beharko luke. Ea aurten posiblea den.

Nesken talderik ez

SDA-k haurren eta kadeteen mailan arituko zen emakumezkoen taldea sortzeko ahalegina egin du aurten. Baina, tamalez, ez da emakumeen talderik sortu. "Bost neska inguru animatu ziren eta ezin izan da talderik sortu, pena handiz. Horietako neska batek Altsasuko mutilen taldearekin jokatuko du, eta beste batzuk Agurainera joko dute. Agurainen emakumezkoen taldea oso sendoa da eta bertara jotzen dute neska askok. Hala ere, hurrengo denboraldirako taldea sortzeko lanetan jarraituko dugu" nabarmendu du Pablo Lopezek.

Lagun Artea ere lanera

Erregional mailan 2. jardunaldia jokatuko da. Altsasuk atseden hartuko du eta lehen jardunaldian Arrotxapearekin bina berdindu zuen Etxarrik Donezteberen kontra jokatuko du igandean, 17:00etan, Donezteben. Bestalde, gutxigatik baina 3. mailatik jaitsi zen Lagun Arteak preferente mailari ekingo dio bihar, larunbatean, 17:30ean Lakuntzan, Amayaren kontra. Altsasu entrenatzetik datorren Jose Antonio Claver da entrenatzaile berria.

Sociedad Deportiva Alsasua

Sociedad Deportiva Alsasuak kudeatzen ditu Altsasuko Futbol Taldeko talde guztiak. Horretaz aparte, pilota, txirrindularitza eta beste lantzen ditu SDA-k. 374 bazkide inguru ditu elkarteak. Futbolak gutxi gora behera 70.000 euroko aurrekontua eskatzen dio SDA-ri. Dantzaleku futbol zelaian egiten dituzte entrenamenduak, eta horrenbeste talde hartzeko batzuetan txiki geratzen zaie. Izan ere, guztiz okupatuta dago zelaia. "Erregional mailakoek astean hirutan entrenatzen dute. Bitan zelai osoa hartuta, eta bestean jubenilekin zelaia partekatuz, zelai erdian. Gainontzeko taldeek zelaia konpartituta entrenatzen dute. Orain litekeena da kimuetarako beste talde bat sortzea, guztira 6 talde izatea. Eta ez gara sartzen. Akaso goiko zelaia zer edo zer txukundu beharko genuke, guztiak aldi berean entrenatu ahal izateko" adierazi digu SDAko presidente Pablo Lopezek.

13 taldeak eta entrenatzaileak

Aurten 220 neska-mutiko inguru daude izena emanda SDA-ko futbol taldeetan. 13 talde izango dira guztira: erregional mailakoa (Javier Fernandez eta Alfonso Nuñez), 2. mailako jubeniletakoa (Peio Goikoetxea), 1. mailako kadeteak (Javier Riezu), 2. mailako kadeteak (Migel Javier Mendoza), 1. mailako haurrak (Xabi Lopez), 2. mailako haurrak, talde mistoa (Gorka Pascua), Sakanako Futbol 8 Topaketetan ariko diren kimuen 6 taldeak (Andoni Barrena, Cristian Davila, Elena Sanchez, David Fernandez, Alfonso Castellano eta aurki izendatuko duten beste entrenatzaile bat) eta benjaminen eta aurrebenjaminen taldea (Iñaki Cristobal).

Kimuen Futbol 8 Topaketetan aritzeko izena ematea zabalik

Aurreko urtean 9 talde aritu ziren

Mank-eko Kirol Zerbitzuak 2014-2015 Futbol 8 Topaketak antolatuko ditu, kimuen mailan. Irailaren 29a da izena emateko azken eguna, Kirol Zerbitzuan (948 464 866 edo kirolak@sakana-mank.com). Topaketa txapelketa moduan jokatuko da baina ez da sailkapenik egingo, helburua kirola eta futbola sustatzea baita.

9 lagunendako
TAXIA
Jon Kordon
948 500 388 / 629 428 025
IRURTZUN

PPSOE,
Euskal Telebista digitala
Nafarroan orain!
Berria erosi taldea

Nonerabili

MARIA LUISA
ALTSASU
100 €tik gorako erosketetan, 10 €ko deskontu-bale bat hurrengoan erabiltzeko.

NEREA ILEAPAINDEGIA
LAKUNTZA
Garbitu, moztu eta apaindu 25 €.

MARTXUETA
IRURTZUN
%5eko irakurketako liburuetan.

MENDILORE
BAKAIKU
30 €ko erosketarengatik, landarea doan, % 5eko deskontua lorontzietan.

LEKU ONA OSTATUA
ALTSASU
Eguneko menuan, kafea doan. Bestelako menuetan, %10eko deskontua.

REDIN LURRINDEGIA ETA KOSMETIKA
ALTSASU
%5eko deskontua osagarrietan.

LIZARDI ESTETIKA ZENTROA
ETXARRI ARANATZ
50 €ko gastuarekin, %10eko deskontu-balea. .

HOSTO GORRI ALTZARIAK
ETXARRI ARANATZ
Dendako produktuetan % 5eko deskontua.

ARGIRO OPTIKA
ETXARRI ARANATZ
2X1 progresiboetan.

ZELANDI KIROLDEGIA
ALTSASU
Lehenengo matrikula doan.

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai

Txirrindularitza

Altsasu Txirrindularitza Probak 85 urte

Eskolako lasterketa bihar Altsasun

Bihar, larunbatean, 17:00etan, eskolen mailako proba jokatuko da Amandrea kalean. Lasterketa eta gynkana daude jokoan.

Astelehenean, 10:00etan jokatuko da Sociedad Deportiva Alsasuak antolatutako proba, amateur mailako zaharrenetakoa

Altsasuko festetan, astelehenean, 85. Altsasu Txirrindularitza Proba antolatuko du Sociedad Deportiva Alsasuak (SDA), Altsasuko Udalaren laguntzarekin, 10:00etan. 23 urtez azpiko eta elite mailako txirrindulari afizionatuak bilduko dituen proba hau Euskaldun Torneorako baliagarria izango da. Afizionatuen egutegian proba beteranoetako bat da Altsasukoa, 85. edizioa baita jokatuko dena.

Altamira hirutan eta Lizarraga bitan

Txirrindulariek 121 km dituzte aurrez aurre. Altsasutik aterata, Zegamako bidegurutzeraino joko dute lehenik eta behin, handik buelta hartu eta Altsasutik Altamira portua igotzeko. Altamira jaitsita Etxarri Aranatzeraino joko dute txirrindulariek, Lizarragako portua igo eta Arbizutik jaitsita, atzera ere Altsasuraino heldu eta Altamiraraino jotzeko. Berriro ere Etxarri Aranatzeraino hurbilduko dira txirrindulariak, bigarrenez Lizarraga igotzeko, eta atzera ere Altamiraraino gerturatuko dira, aipatu portua hirugarrenez igotzeko. Ondoren, Altsasura joko dute eta helmuga Sociedad Deportiva Alsasuaren egoitzaren parean egonen da, Alzania kalean.

Azanza Euskadi talde berriko kirol zuzendari

Migel Madariaga buru duen Euskadi Fundazioak prentsa ohar baten bidez adierazi duenez, 2015erako elite-amateur kategoriako talde berri baten sorreran lan egiten ari dira, "orain arte ikusi ez den egitasmoa". Gorka Gerrikagoitia izango da kirol arduradun nagusia eta kirol zuzendari lanetan Jorge Azanza ariko da. Madariagaren hitzetan "txirrindularien prestakuntza osora bideratuko ditugu indarrak eta 18-20 txirrindulariko taldea izango da". Azanzak Facebooken azaldu duenez, "oso emozionatuta eta motibatuta" dago proiektu berri honetan ariko delako. "Gogo asko dauzkat nire ezagutzak erakusteko eta gure txirrindulariei ahal dudan guztian laguntzeko" gaineratu du.

Areto futbola

Magna Xota, harrobia eta gaztetasuna

Santiagoren kontra

Magnak gaur ekingo dio ligari, Anaitasuna pabilioian, Santiago Futsal arerio duela (20:30ean).

Jokalarien batez bestekoa 21 urtekoa da. Tartean 4 irurtzundar daude: Daniel eta Javier Saldise, Asier Llamas eta Roberto Martil. Gaur hasiko dute liga, etxean, Santiago Futsalen kontra

Magna Nafarroa Xota 17. urtez ariko da areto futboleko maila nagusian, lehen mailan. Imanol Arregi irurtzundarrak zuzenduko du Irurtzungo taldea, 14. denboraldia jarraian, Migel Hernandezen laguntzarekin. Bere anaia Tatono Arregik jarraituko du Xotako presidente. Taldearen zuzendaritzak zain sendoak ditu, esperientzia handikoak. Aldiz, Xota taldea gaztea dela esan dezakegu, oso gaztea, jokalarien adinaren batez bestekoa 21 urtekoa baita. Gehienak 18-24 urteren bueltan dabiltza. Beteranoena, alde handiarekin, Javi Eseverri kapitaina (37 urte) da. Otsagikoak 20. denboraldia beteko du klubean.

Erronka

Rafa Usinen baja nabarituko du bereziki Imanol Arregiren taldeak. Krisiaren eraginez harrobiaren alde egitea eta esperientzia gabeko jokalari gazteak trebatzeko apustua egin du Irurtzungo taldeak. Hala ere, talde gazte hau dena emateko prest dago, borrokatzeko irrikatan. Lehen mailari eustea da aurtengo helburua, eta ahalik eta postu gorenean sailkatzea, nahiz eta kontziente izan, aurten ahalegin handiagoa egin beharko dutela, beste talde batzuen aurrekontuarekin ezin baitute borrokatu.

Imanol Arregi entrenatzaileak azaldu zuenez, "Magnak ahal duen talderik onena du. Harrobiaren eta jokalari gazteen aldeko apustua egin behar da, nahiz eta batzuk lehen mailan esperientziarik ez izan, taldera lehenbailehen egokitu daitezen. Bizpahiru jokalari atera eta beste garai batzuen zain geratu beharko dugu". Alde horretatik, aurtengo denboraldia "erronka moduan" planteatzen du Imanolek. "Denboraldi bakoitza erronka bat da. Horrela ez balitz, erretiratu beharko nintzateke. Nik ilusioa, anbizioa eta borrokatzeko gogoak transmititu behar dizkiot taldeari. Arriskua duen erronka da, baina oso polita" ondorioztatu zuen.

Xotako presidente Tatono Arregik krisia dela eta egoera konplexua dela onartu zuen. "Egoeraren aurrean kluba koherente izaten saiatzen ari da. Ligako abonu merkeenak ditugu. Imanol Arregi klubaren balio erantsi handiena da", adierazi zuen, Xota fundazioaren lana nabarmenduz.

Jokalarien dantza

Asteartean egin zuen aurkezpena Magna Xotak, Civicanen. Aurten 5 jokalari berri izango ditu taldeak: Pablo Ibarra (Boadilla Las Rozas), Samuel Carrillo (Rayo San Fernando), Raul Jimenez (Boadilla Las Rozas), Javi Saldise (Xota) eta Mario Santiago Pedrejon (Cadiz CF Virgili). Lau baja izan ditu Irurtzungo taldeak: Rafa Usin (Bartzelona), Alex Perez (Marfil Santa Coloma), Iñigo Amezketa (2. mailako O Parrulo Ferrol) eta Joni Delgado.
Jatorriaren aldetik, taldeko 13 jokalarien artean 4 irurtzundarrak dira: Asier Llamas atezaina, Daniel Saldise hegala, Roberto Martil hegal-atzelaria eta Javier Saldise pibota. Javi Eseverri kapitain beteranoa da, aurrekoez gain, nafar bakarra. Gainontzeko jokalariak Raul Jimenez atezain madrildarra, Marc Tolrà atzelari bartzelonarra, Victor Arévalo hegal-atzelaria, Jesulito hegal kadiztarra, Pablo Ibarra hegal madrildarra, Juan C. Delgado hegal-pibot kadiztarra, Samuel Carrillo hegal madrildarra eta Mario Santiago Pedrejon hegal-pibot kadiztarra dira.

Txirrindularitza

Zikinkeriz beteta utzi zuten Aralar.

Aralar garbi, baina berandu

Vueltako etapa jokatu eta bi egun beranduago egin zuten garbiketa

Aurreko asteazkenean Vueltako etapa Aralarko San Migelen despeditu zen. Milaka zaletu hurbildu ziren etapa jarraitzera, eta Aralarko pista, Aralar santutegiko inguruak eta beste zaborrez beteta utzi zituzten. Pentsatzekoa zen berehala garbituko zutela zikindutako guztia, baina egunean bertan ez eta hurrengo egunean ere ez zen inor garbitzera hurbildu. Aralarko basozainek, Aralar santutegiko arduradunek eta Uharte Arakilgo udaleko ordezkariek azalpenak eskatu zituzten eta Aralarko zikinkeria agerian uzten zuten bideoak berehala zabaldu ziren sare sozialetan. Azkenean, ostiralean garbitu zuten guztia, dena txukun utzita. Nonbait, osteguneko behelainoa zela eta atzeratu zuten egitekoa.

»

Erbitiren maila bikaina Vueltan

Igandean despedituko da, ezustekorik ezean, Alberto Contadorrek irabaziko duen Vuelta. Lan bikaina egiten ari da Movistarreko Hiriberriko Imanol Erbitik, bere lider Valverderen alde. Larunbatean La Camperona mendatean hirugarrena izan en Erbiti.

Atletismoa

Jabi Moreno seigarrena X. Usurbe Igoeran

X. Usurbe Igoera (4,7 km):

1.	Oier Ariznabarreta	20:44
6.	Jabi Moreno	23:59
17.	Fidel Jimenez	26:21
19.	Patxi Cano	26:32
25.	Julen Paniagua	27:40
43.	Iban Gonzalez	29:30
54.	Borja Gonzalez	30:59

Igandean X. Usurbe igoera jokatu zen Beasainen, 4,7 km-ko proba. 84 korrikalari heldu ziren helmugara eta Oier Ariznabarreta izan zen azkarrena (20:44). Jabi Moreno korrikalari altsasuarra izan zen lehen sakandarra, helmugara 6. postuan heldu eta gero (23:59).

DONOSTIARI BURUZKO IKUSPEGIAK: Donostia artearen bidez ikusteko Arteko galeriaren gonbiteari erantzuna eman diote 24 artistek, tartean Dora Salazarrek. Altsasuarraren Equitativa lana dago ikusgai lastailaren 18ra arte. Paper gainean argazkilaritza eta margoa nahastuz egindako koadro laukiluzea da.

kultura >>

Liburutegi publikoak liburu elektronikoak maileguan ematen hasi dira

Sarean

Nafarroako Liburutegien Sareko kide dira Irurtzun, Etxarri, Altsasu eta Olatzagutiko liburutegiak.

Astelehenaz geroztik Nafarroako Liburutegi Publikoen Sistemako erabiltzaileek 1.400 liburu elektroniko inguruko katalogoa eskura dute eta maileguan eskatu dezakete. Altsasuko liburuzaina Mari Luz Oyarbidek azaldu digunez, Nafarroako Gobernuak bere egin du Espainiako Kultura Ministerioaren plataforma bateratu bateko eskaintzarekin eta horrela jarri da mailegu sistema martxan.

Gailurik ez

Liburutegi publikoetan ez da gailu elektronikorik izanen maileguan emateko. Oyarbidek argitu digunez, erabiltzaileek euren gailuetan web orri batetik (http://navarra.ebiblio.es) jaitsitako aplikazioa instalatu behar dute. Liburuak ePub eta PDF formatuetan irakurtzeko aukera izanen da tablet-etan, telefono adimentsuetan, ordenagailu pertsonaletan edo Adoberen DRMrekin osagarriak diren liburu elektronikoen irakurgailuekin.

Muga epea

Paperezko liburuak bezala liburu elektronikoak irakurtzeko 21 egun dituzte erabiltzaileek. Nafarroako sarean katalogoko titulu bakoitzaren hiruzpalau lizentzia daude. Erabiltzaileak aldi berean gehienez bi liburu elektroniko maileguan har ditzake. Eta aldi berbererako bi bider berritzeko aukera dago, beste erabiltzaile batzuek erreserbatu ez badituzte. Finkatutako epea amaitzen denean, liburu elektronikoa gailuetan ez da eskuragarri izango.

Euskaraz

Kulturako Ministerioaren plataforman euskarazko liburu eskaintzarik ez zegoenez, Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuak bilduma euskarazko liburu elektronikoen sorta batekin osatu du. 93 dira eskura dauden euskarazko tituluak eta Oyarbidek aurreratu digunez, beste ehun bat gehituko ditu gobernuak.

Ziordiko mende bat zahar-berritua

Bazkal garaia, eskolatik ateratzeko garaia eta bizitzako beste makina bat egin kizunetarako ezinbesteko gaztigua ziren elizetako ezkila-hotsak. Ziordiar askok halaxe gogoratu zuten ostiralean, elizan, zahar berritu duten erloju zaharrari begira. "Erlojua zegoen gelan hontzak egoten ziren" gogoratu du batek. Haien artean zegoen Benjamin Urdiain sukaldari izandakoa.

Epi Agirre zinegotziak azaldu digunez, erlojua 1890 eta 1900 urte bitartekoa da. "Elizako gela batean hondakinen artean botata zegoen eta inork txatarrerako bota baino lehen zaharberritzea erabaki genuen". Teilatupetik jaitsi ondoren erlojugile batek piezak askatu zituen. Neguan udal langilea haiek garbitzen egon da eta hura despeditutakoan erlojugileak margotu eta berriro muntatu du erlojua. "Jatorrizko mahaiaren gainean dago erlojua. Baina aldamenean dauden pisuen altzaria propio egin dugu".

Gaur egun Ziordiko udaletxeak du erlojua, ez elizak. Baina Agirrek azaldu digunez, "duela bost urte ezkila jotzeko tresna elektrikoa jarri zen sakristian. Hark ematen ditu orduak eta egiten ditu elizkizunetarako deiak".

Gazte eta helduendako bertso eskola

Izena emateko epea irailaren 30era arte dago zabalik

Bertsotan ikasteko aukera izanen da ikasturte berrian, Nafarroako Bertsozale Elkarteak, Sakanako Mankomunitatearen laguntzarekin, bertso-eskolak zabalduko dituelako. Adina kontuan hartuta bi bertso eskola zabalduko dira Sakanan. Batetik, helduendako bertso eskola dago. Bertsolaritza landu nahi duen edonorendako irekia dago eskola hori. Interesa dutenen artean erabakiko da zer landu, non, noiz eta nola.

Bestea ikasleen bertso-eskola da. Ikasgeletan bertsolaritza landu eta trebatzen segi nahi dutenei begira antolatuko da. Ahal izanez gero nork bere herrian bertso-eskola izan dezan saiatuko da Bertsozale Elkartea.

Eskola horien bitartez ibarrean bertsolaritzaren ezagutza zabaldu nahi dute. Sakanako lehen bertso-eskola sortu zenetik 23 urte pasa dira, eta geroztik bertsolaritzaren presentzia nabarmen handitu da gure herrietan. Bertako bertsolariak ere bidea egiten segitzen dute.

Izena emateko

E-posta bidez: nafarroa@bertsozale.com edo j.leitza@gmail.com helbideetara idatziz. Telefonoz: 948 143 747 edo 652 155 601 zenbakietara hots eginez

bazterretik

Juankar Mugartza

Iraileko oroitzapenak

Irailaren lehen egunak ziren, uda joaten hasia jada, Monedako Jauregiaren etxaurrea baizik ez zen ikusten Santiago osoan. Errepublikako Presidentea barruan zegoen pistola esku batean bere burua defendatzeko eta mikrofonoa bestean Radio Magallanes irratiaren uhinetatik herriari hitz egin ahal izateko.

Valparaison itsas armadako bihotz beltz guztiak amorratuta zeuden, irrikatan legearen aurka altxatzeko; legearen aldeko sutsuenak, legearen aurkako amorratuenak izaten baitira hura gustukoa ez dutenean, eta zuzenetik ez bada, okerretik baliatzen dira berea ezartzeko, haien ordena beldurgarria hedatzeko arima ikaratu guztien hezurmuinetan.

Salvador Allende historiari mintzatu zitzaion orduan: "ni ez naiz apostolu edo mesias baten ezpal berekoa, ez dut martiri baten ezaugarririk, ni gizarte borrokalari bat naiz, herriak eman didan agindua betetzen duena. Baina martiri haragirik ez dudan arren, ez dut pauso bat bera ere atzera emango."

Udako loaldiaren ondoren iraila ernatzen da oroimena ahula dela gogorarazteko, gure lotsarako zeinen azkar ahanzten zaizkigun, gogoratu beharko genituzkeenak. Txileko estatu kolpearen urtemuga da, Pablo Nerudaren heriotza naturalarena ere bai. Naturala baita hiltzea injekzio hilgarri bat sabelean iltzatzen badizute.

Naturala ere bada hiltzea leize zulora botatzen bazaituzte, tiro batez lagunduta edota tiro jaso gabe, konfesatua edota konfesatu gabe. Irailaren hasierako igandearekin batera, Otsoportillon hasten da urtero ikasturtea. Gorrotorik gabe, barkamena eskainiz barkatzeko beharra baldin badago, baina ezin da ahaztu errepikatzea nahi ez duguna.

Pinochet suge traidoreak emandako Estatu Kolpean Merino almiranteak Armadako komandante izendatu zuen bere burua eta Mendoza jaunak, jeneral doilor, zital eta gizatxarrak Karabineroen Zuzendari Nagusi. Egun ere badira haien antzeko milaka jeneral eta zuzendari nagusi, irailaren 27ko egunsenti batean euskal gazteak fusilatu zituztenen modukoak. Irailetik basoetan erail zituzten.

Bitartean, Espainiako Itzulia gure herrietatik pasa da, Aralarreraino ko bide bazter guztiak ikurrinez, ikurrin erraldoiez, josiz eta Euskal Herria, gure nazio gorri, berde eta txuria, abegikorra dela erakutsiz. Frantziako Tourra ere pasatu zen Euskal Herritik Indurain handiaren garaian. Ohikoa da. Itzuli klasikoak dira, nazioartekoak izateko bokazioa dutenak.

Alaitu gaitezen gure txirrindulariekin, Gorka Verdugo, handiena. Poztu gaitezen gure jaiekin, gure etorkizunarekin ametsez bete. Zoriontsuak izan gaitezen ... baina ez dezagun horregatik oroimena gal. Txileko presidenteak, Radio (Beleixe) Magallanes irratitik hauxe esan zigun bere azken mintzaldian: "Jende hau ez da ezeren aurrean gelditzen."

Gasteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 8%	euria: 18%	euria: 40%	euria: 38%	euria: 15%	euria: 28%	euria: 45%
Min: 13 Max: 26	Min: 12 Max: 25	Min: 13 Max: 24	Min: 13 Max: 25	Min: 15 Max: 26	Min: 17 Max: 24	Min: 15 Max: 23

: tenperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	33	11.5	25.3
Etxarri A.	31.5	9	5.2
Altsasu	31.5	10.5	14.8
Aralar	24	11.2	7.7
Urbasa	28	8	22.5

: ilargiaren aldia>>

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
16	24	1	8

Sakanako gida

Negozio eta zerbitzuen gida laster kaleratuko du Guaixek.

Zure negozioaren berri ere eman nahi dugu!

Gidaren ezaugarriak

- Doaneko 5.000 ale.
- Sakana guztian buzoneatuta.
- Eskualdeko negozio eta zerbitzuen informazioa eta intereseko telefonoak.

Informazio +

publizitatea@guaixe.net edo
948 564 275 / 948 562 107

Leire Rivadulla eta Iñigo Azpiazu

Tapicería Del Car SL

ALTSASU

Zergatik erabaki duzue gidan sartzea?
30 urte baino gehiago daramatzagulako enpresa honetan eta gure lana Sakana osoan gehiago zabaldu nahi dugulako.

Guaixeko gida Sakanako ekonomia suspertzeko baliagarria iruditzen zaizue?
Bai, bai, argi eta garbi. Askotan ez dakigu zer dugun Sakanan eta gertatu izan zaigu zailtasunak izatea zerbitzu bat opatzeko garaian.

Zer eskaintzen duzue zuek?
Gure lana tapizatzea eta muntaia da. Esperientzia handia dugu mota ezberdinetako ibilgailuetan: kotxeak, karabanak, autobusak, kamioiak... Bestalde, altzariak, toldoak –ibilgailuetako toldoak ere–, egiten ditugu. Artisau-lana eta neurrira egiteagatik nabarmentzen gara. Bezeroaren beharretara egokitzen gara, betiere, kalitate handiko lana eginez.

Erta Elizondo Arruabarrena

Arkitektoa

ETXARRI ARANATZ

Zergatik erabaki duzu gidan sartzea?
Orain dela urtebete Etxarri Aranatzen arkitektura bulegoa ireki nuen eta primerako plataforma iruditzen zait, batez ere inguruko jendearengana ailegatzeko.

Guaixeko gida Sakanako ekonomia suspertzeko baliagarria iruditzen zaizu?
Aukera oso ona Sakanako komertzio edo negozioak publizitatzeko. Batzuetan ez gara ohartzen edo ez dakigu gure herrian edo inguruan ditugun zerbitzuak eta kanpora jotzen dugu... Sakanako zerbitzuak ezagutzeko primerako aukera iruditzen zait. Hasi berri, nire kasua bezala, edo urte batzuk daramatzatenendako oroigarri bezala. Nahiz paper formatoa izan, eremua konkretua denez erabilera positiboa edukiko duelakoan nago.

Zer eskaintzen duzu zuk?
Diseinuarekin eta eraikuntzarekin zerikusia duen edozer gauza egiteko gai naiz, jendeak uste baino eremu zabalagoan, bai teknikoki baita artistikoki ere. Bezeroaren beharrei erantzuna emanez, egoerari moldatuz, arduraz eta eraginkortasunez. Bien arteko harremanetan, gertutasunean, konfidantzan oinarriturik. Prozesu bakoitzak bere denbora behar du, prisaren arduragabekeria baztertuz, gauzak ondo egiteko denbora bikoitza behar da. Gehiago jakin nahi duena nire web-orrian sar dadila: www.arkiterta.es.

Zergatik erabaki duzu gidan sartzea?
Oso interesgarria iruditzen zaidalako Sakanan dauden negozioak gida batean biltzea, jendeari doan buzoneatzea, web orrian ere agertzea eta gidan agertzen garenon informazioa jendeak eskura izatea.

Guaixeko gida Sakanako ekonomia suspertzeko baliagarria iruditzen zaizu?
Eskualde hau oso zigortuta dago, beraz, hemengo negozioak bultzatzeko egiten diren ekintzak oso ongi iruditzen zaizkit. Gida honekin ezagutuko ditugu Sakanan dauden eskaintzak onak eta kalitatezkoak direla. Honekin batera, jendeak hemen gehiago erostea kanpora joan gabe lortuko bagenu pausu handi bat litzateke. Jendea kontzientziatu behar dugu: Sakanan bizi eta erosi!

Zer eskaintzen duzu zuk?
Perfumerian eta kosmetikan profesionalak gara. Osagarriak ere saltzen ditugu. Gure produktuak edozein saltokitan, handietan ere, eros daitezke, baina guk, urte askotako eskarmentua dugu, familiako negozioa da, hori dela eta, adituen aholkuak eskaintzen ditugu. Denda txikia izatean, bezeroak ongi zaintzen ditugu gertutasuna emanez. Esan behar dugu, Nafarroako Merkataritza Ganberak lehendabiziko saria eman zigula gure bezeroentzako arreta-zerbitzuagatik.

Julene Zelaia Saldaña

Redin lurrin-denda

ALTSASU

Javier Barbajero

Javier Autoeskola

IRURTZUN

Zergatik erabaki duzu gidan sartzea?
Oso promozio komertzial ona iruditzen zait, bailaran ez dagoena, eta euskaraz.

Guaixeko gida Sakanako ekonomia suspertzeko baliagarria iruditzen zaizu?
Zerbait egin beharko dugu. Bakoitzak gure lanean jarraitu, eta, horrekin batera, gure burua iragarri eta ezagutarazi beharko dugu!

Zer eskaintzen duzu zuk?
www.autoescuela-javier.es web-orrialdean jartzen duena. Karnetaren teoria on-line ateratzeko aukera eskaitzen dugu eta praktikoa pertsonalizaturik ateratzeko aukera.
Zure etxera joaten naiz bila eta zuk nahi duzun tokian uzten zaitut: unibertsitatean, institutuan, Bezeroaren beharretara moldatzen naiz. Hori oso garrantzitsua da herri asko dagoen zonalde honetan, ikasleen mugikortasuna errazten dut.
Gidari profesionalendako C.A.P. ikastaroak ere ematen ditut; bost urtetik behin derrigorrez berritu behar da eta hemen bertan, Irurtzunen, egiteko aukera dago. Hori web-orrialdean eta Guaixen iragartzen dut.